BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALA BAO



## II. ATALA
## BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Bilbao-Bizkaiako Ur-Partzuergoa

**Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan hutsik dauden lanpostuak betetzeko hautaketa prozesuetarako deialdia.**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeak, 2019ko maiatzaren 21ko bileran, hauxe erabaki zuen:

*Lehena:* Ondoko lanpostuak betetzeko lehiaketa oposiziorako deialdia egitea:

— OP19/001 Esptea.: Dispatching Laguntzaile Teknikoa. 5 lanpostu.

— OP19/002 Esptea.: Horniduen Ikuskatzailea. 7 lanpostu.

— OP19/003 Esptea.: Iturgin ofiziala. 3 lanpostu.

— OP19/004 Esptea.: Laborategiko analista. 5 lanpostu.

— OP19/005 Esptea.: Laguntzaile Teknikoa (Informatika). 2 lanpostu.

— OP19/006 Esptea.: Ingeniari tekniko industriala. 10 lanpostu.

— OP19/007 Esptea.: Ingeniari tekniko industrial elektrikoa. 2 lanpostu.

— OP19/008 Esptea.: Ingeniari tekniko industrial kimikoa. Lanpostu bat.

— OP19/009 Esptea.: Telekomunikazioetako erdi mailako teknikaria. Lanpostu bat.

— OP19/010 Esptea.: Hornidura eta saneamenduko obra eta proiektuen goi mailako tituluduna. 6 lanpostu.

*Bigarrena:* Deialdi hau arautuko duten eta Akordio honi Eranskin legez erantsi zaizkion oinarri orokorrak eta oinarri bereziak nahiz horien gai-zerrendak onartzea.

*Hirugarrena:* Deialdia eta oinarriak batera argitaratzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki horien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Bilboko administrazioarekiko auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Hala ere, aukera dago horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordeari, hilabeteko epean argitaratzen diren egunaren biharamunetik aurrera. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Bilbon, 2019ko ekainaren 7an.—Gerentea, Pedro María Barreiro Zubiri

cek: BAO-2019a114-(II-2296)

# BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO PLANTILLAKO PLAZEN KANPO HORNIDURARAKO LEHIAKETA OPOSIZIOKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

## 1. Deialdiaren xedea

1.1. Deialdi honen xedea da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko lan-kontratudun langile finkoen plazak lehiaketa oposizio bidez betetzea txanda askean edo minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako txandan, betiere deialdiaren oinarri zehatzetan ezarritakoaren arabera.

Era berean, deialdi honen xedea da aldi baterako lan poltsak hornitzea, 15. oinarrian adierazitakoari jarraituz.

1.2. Deialdi bakoitzak ezartzen du zeintzuk diren txanda askean edo minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako txandan hornitzeko gordetako plazak.

1.3. Deitutako plazetarako ezarritako baldintzek, besteak beste hizkuntza eskakizunak (betekizun hori manuzkoa denean), berekin dakarte izangaiek ezingo dituztela horiek bete, baldin eta baldintzak egiaztatzen ez badituzte oinarrietan ezarritako moduan.

1.4. Epaimahaiak ezingo du adierazi hautaketa prozesua deitutako plazen kopurua baino handiagoa den kopuru batek gainditu duela; beraz, muga hori gainditzen duten proposamenak deusezak izango dira zuzenbidean.

## 2. Baldintza orokorrak

2.1. Hautatutako pertsonalak lan kontratu finkoa izenpetuko du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, indarrean dauden xedapenek ezarritako eskubide eta betebehar guztiekin.

Zerbitzua emango den destinoa hautaketa prozesua amaitzen denean hutsik dauden postuen araberakoa izango da; postu huts horiek deitutako plazari egokituko zaizkio eta Partzuergoak horiek bete beharko ditu.

2.2. Lanaldia eta gainerako lan baldintzak destinoa esleitu zaien lanpostuetarako ezarritakoak izango dira.

## 3. Parte hartzeko baldintzak

3.1. Langileak hautatzeko prozesuetan parte hartu ahal izateko, honakoa beharrezkoa izango da:

a) Europar Batasuneko edozein estatu kidetako nazionalitatea izatea edo, bestela, Europar Batasunak sinatutako eta Estatu Espainolak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan etorri askea aplikatzekoa zaion estatu bateko nazionalitatea izatea.

Era berean, Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalen ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, betiere zuzenbidez banatuta ez badaude. Horrez gain, euren ondorengoek eta euren ezkontideen ondorengoek ere parte hartu ahal izango dute, betiere ezkontideak zuzenbidez banatuta ez badaude, ondorengoak hogeita bat (21) urtetik beherakoak badira edo ondorengoak beren lepotik bizi eta 21 urtetik gorakoak badira.

Halaber, aurreko paragrafoetan aipatu ez diren atzerritarrek ere parte hartu ahal izango dute, betiere legezko egoitza Espainiako Estatuan baldin badute.

b) Deitutako plazari esleitutako zereginak betetzeko gaitasun funtzionala izatea.

Gaitasun hori bere garaian egiaztatu beharko da agiri bidez, lan kontratua sinatu aurretik epaimahaiak onartutako izangaiei zenbait proba eta osasun azterketa egin ondoren. Osasun azterketa hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak adierazitako zerbitzuetan egingo da.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Hautaketa prozesuak dirauen bitartean, epaimahaiari beharrezkoa iruditzen bazaio, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eskatu ahal izango dio elbarrientzako txandan lehiatzen diren izangaiei probak eta osasun azterketak egiteko. Horrela, bada, deialdiko lanpostuetan egin ohi diren jarduerak betetzeko gai diren egiaztatu ahal izango da, hautaketa prozesua amaitu arte itxaron beharrean.

c) 16 urte izan beharko dituzte eta ezin izango dute erretiratzeko arauzko adin arrunta eduki (65 urte). Txanda itxiko (txandaka) plazetarako deialdietan, beharrezkoa izango da 18 urte beteta izatea, Langileen Estatutuaren 6.2. artikuluarekin bat etorriz.

d) Kasuan kasuko plazarako eskatutako titulazioa edukitzea edo titulua jasotzeko eskubideak ordainduta izatea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa ziurtatzen duen agiria eduki beharko da.

Goi mailako unibertsitate titulazioa betekizun gisa dauzkaten deialdien kasuan (lizentziatura, arkitektura edo ingeniaritza), gradu titulazioa izateak, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan araututako unibertsitate masterrarekin, kasu bakoitzean kasuan kasuko plazarako legedi aplikagarriak ezarritako titulazioarekin baliokidetasuna izango du. Erdi mailako unibertsitate titulazioa betekizun gisa dauzkaten deialdien kasuan (unibertsitate diplomatura, arkitektura teknikoa edo ingeniaritza teknikoa), urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 9. artikuluetan araututako gradu titulua izateak kasu bakoitzean kasuan kasuko plazarako legedi aplikagarriak ezarritako titulazioarekin baliokidetasuna izango du. Hartara, Goi mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparru (GMHKEE) eta Kualifikazioen Europako Esparru (KEE) barruan ezarritako baliokidetasun mailak erabiliko dira.

e) Diziplina espediente bidez inolako Administrazio Publikoren zerbitzuetatik edo Autonomia Erkidegoetako organo konstituzional edo estatutarioetatik baztertuta ez egotea, ezta ebazpen judizial bidez lan edo kargu publikoetarako desgaikuntza absolutua edo berezia izatea ere, antzeko zereginak betetzeko aldendu edo desgaitu egin badute.

Atzerritarra izanez gero, desgaituta edo antzeko egoeran ez egotea, eta bere Estatuan lan publikoa antzeko egoeran lortzea eragotziko liokeen diziplina zigorra edo parekoa ez izatea.

f) Ezin izango dira ezintasunagatiko edo bateraezintasunagatiko legezko auziren baten menpe egon, administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei buruzko indarreko arautegian ezarritakoa kontuan hartuta. Hala ere, ez du inolako eraginik izango arautegiak berak aukeratzeko emandako eskubidean.

g) Kasuan kasuko eranskinetan hautaketa prozesu bakoitzerako zehaztutako gainerako beste betekizun guztiak bete beharko dituzte.

h) Minusbaliotasuna duten pertsonei gordetako plazetara aurkezten direnek izaera hori onarturik izan beharko dute, betiere %33koa edo hortik gorakoa izango den ezgaitasun mailarekin; izaera hori Administrazioaren organo eskudunak onartu beharko du (foru aldundien organo eskuduna, Imserso, edo baliokidea).

3.2. Deialdian parte hartu nahi dutenek aurreko baldintza guztiak bete beharko dituzte eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunean bertan. Era berean, hautaketa prozesuak dirauen bitartean eta kontratatuak izan arte, baldintza horiei guztiei eutsi beharko diete.

Onartuak izateko eta hautaketa prozesuan parte hartzeko, izangaiek eskaeran beharrezko betekizun guztiak betetzen dituztela adierazi besterik ez dute. Nolanahi ere, prozedurako fase zehatz batean horiek guztiak egiaztatzeko eskatuko zaie.

3.3. Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa izango da, eta esan nahiko du izangaiek agindu dakizkiekeen froga psikoteknikoak edota identitatea egiaztatzekoak egiteko prest daudela, eta froga horien emaitzak ere baloraziorako faktore gisa baliatzeari onirizten diotela, oinarri arau hauetan aurreikusitako guztiaren arabera.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

3.4. Oinarri hauetan jasotako hautaketa prozesura aurkezteak esan nahi du izangaiek baimena ematen dutela eskabidean ageri diren datu pertsonalak erabiltzeko (izen-abizenak, NAN eta prestakuntza maila), aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, webgunean eta, oro har, hautaketa prozesuaren emaitza partzialak edo behin betikoak jakinarazteko erabiltzen den edozein bideren bitartez argitaratzeko. Halaber, izangaiek datuak erabiltzeko baimena ematen dute, HAEEk edo erakunde eskudunak euskararen hizkuntza eskakizuna edo beste hizkuntzaren baten ezagutza maila egiaztatu dezan, eta, oro har, hautaketa prozesuari dagozkion ariketak epaimahaiak, erakundeak edo enpresak agintzen dionak moduan prestatu eta burutzeko direla baieztatzeko.

Hautaketa prozesuak publizitate printzipioan araututa daude. Ondorioz, izangaiaren eskabiderik ez da onartuko baldin eta ez badu bere datuak lagatzea onesten aurreko paragrafoan adierazitako edukiaz eta helburuetarako.

Izangaiek adierazi beharko dute euren datuak (izen-abizenak, NAN, helbidea, telefonoa eta prestakuntza maila) sektore publikoko beste erakunde batzuei lagatzeko eragozpenen bat duten. Lagapen horren helburu bakarra da erakunde horiek lan eskaintzak legez ezarritako moduan egitea. Datuak lagatzea ez dutela nahi berariaz adierazi ezean, izangaiek horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

Izangaiek emandako datuak datu pertsonalak gordetzeko fitxategi batean sartuko dira, eta horren helburua izango da pertsonal finkoa eta aldi baterako pertsonala kudeatzea. Fitxategiaren arduraduna da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa; eta interesdunak datuak ikusi, zuzendu eta ezabatu ahalko ditu, baita datuen tratamendua mugatu edo horri uko egin ere. Gainera, interesdunak baliatu ahalko du datuon eramangarritasun-eskubidea. Horretarako, idazki bat bidali beharko du helbide honetara: Done Bikendi kalea, 8, Albia I eraikina, 48001-Bilbo.

3.5. Izangaiek deialdi zehatz bakoitzeko txanda bakarrean parte hartu ahalko dute, txanda askean edo minusbaliotasuna duten pertsonen txandan, eta halaxe adieraziko dute eskaeran, betiere 1.2. oinarriaren bigarren paragrafoan ezarritakoari kalterik egin gabe.

Nahi den aukera berariaz agertu ezean edo deialdi bererako baliozkotasunez egindako aukera bat baino gehiago egonez gero edo izangaiak txanda murritzerako baldintzak bete ezean, eskaera txanda askerako aurkeztu dela ulertu beharko da ofizioz.

Ezgaitasun intelektuala egiaztatzen duten pertsonek betetzeko moduko plazak jasotzen dituzten deialdi zehatzetan, plaza lortzeko beharrezkoa izango da txanda horretako izangaiek inguruabar hori zehaztea.

## 4. Eskaerak aurkeztea

4.1. *Aurkezpena eta epea:* Hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabideak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerenteari zuzenduko zaizkio eta hogei eguneko epearen barruan aurkeztu ahalko dira, betiere Estatuko Aldizkari Ofizialean deialdiaren iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

4.2. *Eskaeraren baldintzak:*

a) Eskaera telematikoak eredu ofizialean aurkeztu beharko dira; eredu hori www.consorciodeaguas.eus webgunearen bidez eskuratu ahalko da.

Eskaerok helbide elektroniko horretan ezarritako prozedura elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira.

Eskabidearekin batera eskaneatutako Nortasun Agiri Nazionala (NAN) edo baliokidea (atzerritarra izanez gero) aurkeztu beharko da.

Alegatutako baldintzak eta merituak betetzen direla adierazteko, zerrenda eta identifikazio bat egin beharko dira hautaketa prozesuan parte hartzeko eskatzen den eskaera orrian. Gauzak horrela, eskaerarekin batera ez da aurkeztu behar baldintza eta meritu horien egiaztagiririk; izan ere, partaidetza baldintzak nahiz alegatutako merituak egiaztatu beharko dira horretarako eskatuak izan diren unean, betiere oinarrietan ezarritakoaren arabera.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Halaber, hala nahi dutenentzat, Partzuergoak erregistro bulego osagarria prestatuko du, Albia II eraikinean kokatuko dena; bertan, hala nahiago duten pertsonen esku jarriko dira ordenagailuak eta eskaera betetzeko beharrezko bestelako baliabide teknikoak, eta interesdunei aholkuak eta laguntza emango zaie eskaera zuzen eta egoki bete dezaten.

b) Aukera gisa, eskaera paperean aurkeztu nahi duten izangaiei zuzenduta, oinarri hauei eskaera eredu bat erantsi zaie; eredu hori oinarri hauetan ezarritakoaren arabera bete eta 4.3. atalean adierazitako tokietan aurkeztu beharko da.

c) Eskaeraren atal guztiak bete beharko dira. Eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute, eskariak aurkezteko epearen amaiera eguna kontuan hartuta beti.

Horretarako, eskabidearen dagokion atalean, izangaiek hauxe adierazi beharko dute:

— Eskatutako datu pertsonalak.
— Zein deialditan parte hartu nahi duen.
— Zein txandatan parte hartu nahi duen: txanda askean (a) edo minusbaliotasunen bat duten pertsonentzako txandan (b), betiere deialdian ezarritakoari jarraiki. Izangaiek txanda bakarrean parte hartu ahalko dute deialdi bakoitzeko, 1.2. oinarritan ezarritakoari kalterik egin gabe.
— Elbarritasunak dituzten pertsonek adierazi egin beharko dute hori eskabidean, baita proba egiteko beraien ustez zein egokitzapen tekniko behar dituzten ere.
— Ariketak zein hizkuntza ofizialetan egin nahi dituzten, euskaraz edo gaztelaniaz. Edonola ere, gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak jatorrian diseinatu diren hizkuntzan egingo dira.
— Parte hartzeko betekizun gisa zein titulazio aurkezten duten.
— Euskarazko hizkuntza eskakizun ziurtatua.
— Lehiaketa faserako alegatu diren merituak: 11. oinarrian aurreikusitakoaren arabera zehaztu beharko dira. Meritu horiek geroago egiaztatu beharko dira, 11. oinarrian ezarritako forman eta epean. Parte hartzeko eskabidean alegatutako merituak baino ez dira baloratuko.

4.3. *Aurkezteko tokia:* Eskabideak modu telematikoan aurkeztuko dira www.consorciodeaguas.eus webgunearen bidez.

Aukera gisa, paperezko formatua erabiliz gero, eskabideak modu presentzialean aurkeztu ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluak ezarritakoari jarraikiz, helbide honetan: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Done Bikendi kalea 8, Albia II, beheko solairua, 48001-Bilbao.

### 5. Izangaiak onartzea eta hautaketa prozesuan parte hartzea

5.1. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ostean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerentearen ebazpen bidez, onartutako eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda onartu eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Zerrenda hori Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren iragarki taulan argitaratuko da, eta 10 egun baliodun emango dira baztertutako izangaiek baztertzea eragin duten akatsak zuzentzeko, edo zerrenden kontrako erreklamazioak aurkezteko.

5.2. Behin-behineko zerrenda behin betikotzat joko da erreklamaziorik aurkezten ez bada, edo ofizioz akatsik antzematen ez bada. Erreklamaziorik egonez gero, gerentearen beste ebazpen baten bidez onartuko edo baztertuko da. Ebazpen horrek, halaber, behin betiko zerrenda onartuko du, eta adierazitako moduan argitaratuko da hau ere. Epearen barruan zuzentzen ez bada, eskabidea ez da onartuko.

Behin-behineko zerrendetatik baztertuak izan diren izangaiek zerrenda horien aurkako erreklamazioa epe barruan aurkeztu badute, kautelaz aurkeztu ahalko dira probak egitera, planteatutako erreklamazioa ordurako ebatzi ez bada.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Halaber, behin betiko zerrendetatik baztertutakoak kautelaz aurkeztu ahalko dira azterketak egitera, betiere baztertzearen aurkako administrazio errekurtsoa aurkeztu izana egiaztatu badute eta ordurako ez bada ebazpenik eman horri dagokionez.

5.3. Hautaketa prozesuan proba baztertzaileek berekin ekarriko dute horiek gainditu ez dituzten izangaiak gainerako probetatik eta deialdiaren izapideetatik bazterturik geratzea, baldin eta dagokion erreklamazioa edo errekurtsoa aurkezten ez badute eta horien inguruan ebatzi ez bada probak egiteko eperako. Azken kasu horretan probak edo izapideak egitera aurkeztu ahalko dira kautelaz.

Kautelaz aurkeztu ezean, probak edo izapideak egiteari uko egin zaiola ulertuko da, nahiz eta aurkeztutako erreklamazioaren edo errekurtsoaren aldeko ebazpena lortu. Kautelaz egindako ariketek ez dute inolako baliozkotasunik izango, baldin eta aurkeztutako erreklamazio edo errekurtsoa ezesten bada.

**6. Epaimahaia**

6.1. Osaera: Kalifikazio epaimahaiaren osaera kideen inpartzialtasun eta profesionaltasun irizpidetan oinarrituko da, eta, era berean, emakumeen eta gizonen arteko parekotasuna bilatzeko ahalegina egingo da.

Kalifikazio Epaimahaiko kideek beren izenean jardungo dute, hau da, ez dira inoren edo ezeren ordezkari izango.

Deialdi bakoitzeko epaimahaia presidente batek eta bost kidek osatuko dute, eta Partzuergoaren Hitzarmen Kolektiboan, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 60. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 31. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz izendatuko dira.

Kideetariko bat Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak proposatuta izendatuko da.

Halaber, euskararen ezagutza baloratzeko, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP) kide bat izendatuko du.

Idazkari gisa jardungo du Partzuergoaren edo enpresa batzordearen proposamenaz izendatutako kideen artetik epaimahaian aukeratutako kideak.

6.2. Epaimahaia osatuko duten pertsona titularren eta ordezkoen izenak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerentearen ebazpenaren bidez.

Epaimahaiko kideek ezingo dute parte hartu, eta hala jakinaraziko diote Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerenteari, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako kasuren bat gertatzen bada. Aurreko kasuetako bat gertatuz gero, izangaiek epaimahaikideak errefusatu ahal izango dituzte, betiere aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Ezin dira epaimahaiko kideak izan deialdia argitaratu aurreko azken bost urteetan hautaketa probetarako izangaiak prestatzeko lanean aritu direnak; halaber, deialdiaren plazei dagokien eremu funtzional bereko oposizioak prestatzen dituen zentroren batekin denboraldi horretan lan egin dutenak ere ezin daitezke epaimahaiko kide izan.

6.3. Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-18 artikuluetan xedatutako arauen arabera jardungo du. Nolanahi ere, epaimahaikideak mahaiburuaren aginduz bilduko dira, aldez aurretik idazkariak bilerarako deia egin ostean. Bilera hori hautatze probak hasi baino lehenago egin behar da, behar adina denborarekin. Bileraren osaera baliozkoa izan dadin, nahitaezkoa izango da mahaiburua eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea.

Erabakiak bertaratutako kideen botoen gehiengoz hartuko dira. Epaimahaiko kide guztiek hitza eta botoa izango dute; idazkariak berak ere bai. Berdinketarik egonez gero, boto erabakigarria epaimahaiburuarena izango da.

6.4. Mahaiburua eta bere ordezkoa ez daudenean edo gaixorik daudenean, edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen denean, urte gehien dituen epaimahaikideak ordezkatuko ditu.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Idazkaria ez dagoenean edo gaixorik dagoenean, kargua hutsik dagoenean edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen denean, Partzuergoak edo enpresa batzordeak proposatuta izendatutako kide gazteenak ordezkatuko du.

6.5. Epaimahaiak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du eta prozesuaren objektibotasuna bermatuko du.

Era berean, antolamendu juridikoaren arabera, epaimahaiak oinarri hauek ezartzerakoan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu eta behar besteko erabakiak hartuko ditu deialdi bakoitza behar den moduan garatu dadin. Horrez gain, oinarrietan aurreikusita ez dagoen guztian ezarri behar diren irizpideak zehaztuko ditu.

Hautaketa prozesuko edozein unetan, epaimahaiak deialdi honetan eskatutako betekizunen bat betetzen ez duen izangairen bat dagoela baldin badaki, interesdunari entzun ondoren, organo eskudunari proposatu beharko dio izangaia gaitzesteko. Era berean, izangaiak eskabidean adierazitako zehaztugabetasunak edo gezurrak zeintzuk diren azalduko du.

Epaimahaiak behar besteko neurriak hartuko ditu oposizioko idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko eta izangaiak nortzuk diren jakin gabe zuzentzeko.

6.6. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza jaso ahal izango du, egoki iruditzen bazaio. Aholkulariok, epaimahaiak eskatzen dienean, euren espezialitate teknikoetan baino ez dute jardungo, eta hitza izango dute, baina botorik ez.

6.7. Jakinarazpenei eta gainerako gorabeherei begira, honako hau izango da kalifikazio epaimahaien helbidea: Giza Baliabideen Zuzendariordetza, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Done Bikendi kalea 8, Albia I, 4. solairua, 48001-Bilbao.

**7. Deialdiak, jakinarazpenak eta informazioa**

Lehenengo ariketa egiteko deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Gainerako jakinarazpen eta komunikazioak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren iragarki taulan argitaratuko dira (Done Bikendi, 8, Albia II eraikina, beheko solairua, 48001-Bilbao).

Era berean, interesdunek Interneteko helbide honetan ere jaso ahalko dute informazioa: www.consorciodeaguas.eus.

Webgune horren helburua informazioa eskaintzea baino ez denez, lehenengo paragrafoan adierazitakoak baino ez dira izango jakinarazpenetarako bide ofizialak.

Besteak beste, honako informazio hau egongo da ikusgai web orrian: oinarriak, onartutakoen zerrendak, ariketak zein egunetan egingo diren eta lortutako emaitzak (emaitzok prozesuan onartutakoei emandako izangai kodearen arabera identifikatuko dira).

Deialdiari buruzko informazio orokorra hemen egongo da eskuragarri: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa, Done Bikendi kalea 8, Albia II, beheko solairua, 48001-Bilbao.

**8. Hautatzeko prozedura**

Hautatzeko prozedura oinarriotan ezarritakoa izango da, deialdi zehatz eta txanda bakoitzerako zehaztutakoaren arabera.

**9. Oposizio fasea**

9.1. Oposizio fasea deialdi zehatz bakoitzerako zehaztutako ariketek osatuko dute.

Lehenengo ariketa egiteko tokia, data eta ordua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Oposizioaren gainerako ariketak egiteko iragarkiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren iragarki taulan argitaratuko ditu epaimahaiak. Iragarki horiek gutxienez hurrengo ariketa egin baino 24 ordu lehenago argitaratu beharko dira.

Ariketa bat amaitzen denetik hurrengoa hasten den arte gutxienez hirurogeita hamabi ordu igaroko dira eta gehienez berrogeita bost egun natural.

Izangaiei deialdi bakar batean egingo zaie ariketarako deia. Deia jaso arren, izangaiak edozein ariketatara aurkezten ez badira, ariketa horretan bertan parte hartzeko eskubidea galduko dute zuzenean, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak askata-

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

sunez balioetsitako kasuetan izan ezik. Ariketak egiten hasitakoan agertzen diren izangaiei ere arau bera ezarriko zaie.

Emakumezko izangairen batek, behar bezala egiaztatutako haurdunaldiko arriskua edo erditzea dela eta, ezin badu hautaketa prozesua burutu edo hautaketa prozesuko ariketaren bat egin, haren egoera baldintzapean geratuko da, alegia, prozesua amaitu beharko du eta geroratutako faseak gainditu beharko ditu; baina fase horiek ezingo zaizkio gehiegi atzeratu, gainerako izangaiek prozesua zentzuzko epean ebatz dadin daukaten eskubidea ez urratzeko. Hori epaimahaiak baloratu beharko du, eta, betiere, hautaketa prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratu aurretik egin beharko dira geroratutako probak.

Nortzuk diren egiaztatu ahal izateko, NANa edo, atzerritarrak izanez gero, agiri baliokidea eramango dute probetara. Epaimahaiak une oro eskatu ahal izango die izangaiei behar bezala identifikatzeko.

Prozeduraren edozein unetan epaimahaiak baldin badaki izangairen batek ez dituela betetzen deialdian eskatutako baldintzak, baztertua izango da, interesdunari entzun ondoren; halaber, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerenteari inguruabar horren berri emango zaio.

9.2. Bi txandatarako (askea eta minusbaliatuak) plazak dituzten deialdietan hautaketa probak ez dira desberdinduko aukeratutako txandaren araberako edukiari dagokionez, betiere atal honetan arautako egokitzapenei kalterik egin gabe.

Hautaketa prozesuan zehar tratamendu bereizia emango zaie bi txandei (askea eta minusbaliatuak), onartutakoen zerrendei, ariketak egiteko deialdiei eta gainditutakoen zerrendei dagokienez. Hala ere, prozesua amaitzen denean, zerrenda bakarra egingo da eta bertan hautaketa proba guztiak gainditu dituzten izangai guztiak azalduko dira, lortutako puntuazio osoaren arabera ordenatuta, betiere parte hartu duten txanda alde batera utziz. Zerrenda hori destinoak eskatzeko eta adjudikatzeko erabakitzailea izango da, 12. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Ezgaitasun intelektuala egiaztatzen duten pertsonek betetzeko moduko plazak jasotzen dituzten deialdietan tratamendu berezitua emango zaio erreserba horri.

Kalifikazio epaimahaiak denbora eta ariketak egiteko baliabideak egokituko dizkie egokitzapenen bat behar duten eta eskaeran bertan hala eskatu duten izangai elbarriei, baldin eta duten minusbaliotasuna %33koa edo gehiagokoa bada. Horrela, bada, gainerako parte hartzaileek beste aukera izango dute. Hala ere, horren bidez, ez da probaren edukia inola ere hutsalduko eta ez da murriztu edo gutxituko eskatutako gaitasun maila.

Interesdunek dagokion eskaera zehatza egin beharko dute instantzian, eta hautaketa prozesura berdintasunez sartzeko beharrizan zehatzak adieraziko dituzte bertan.

Eskatutako egokitzapenak bidezkoak diren edo ez baloratzeko, izangaiari dagokion ziurtagiria edo informazio osagarria eskatuko zaio. Egokitzapena ez da modu automatikoan emango; hori soilik egingo da minusbaliotasunak harreman zuzena duenean egin beharreko probarekin.

Era berean, Epaimahaiak txosten bat eskatu ahal izango du, eta, hala beharko balitz, lan, osasun edo eskumeneko organoen Administrazioko organo teknikoen lankidetza eskatu ahal izango du, dagozkion egokitzapenak zehazteko.

Hautaketa prozesua garatzerakoan Epaimahaiari zalantzak sortzen bazaizkio izangaiak plazan egin ohi diren jarduerak betetzeko gaitasunaren inguruan, betiere desgaitasuna duten pertsonei erreserbatutako plaza kopuruagatik, dagokion organo eskudunari beharrezko irizpena emateko eskatu ahalko zaio. Edonola ere, irizpena eman arte, izangaiak hautaketa prozesuan parte hartu ahalko du eta onartutakoen eta baztertutakoen gaineko behin betiko ebazpena etengo da, harik eta irizpena jaso arte.

9.3. Izangaiek jarduteko izango duten hurrenkera martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluak ezarritako zozketaren emaitza izango da. Ez badago izangairik zozketan zehaztutako letrarekin hasten den abizenik duenik, jarduketa hurrenkera hasiko da hurrengo letrarekin hasten den abizena dutenekin eta hala ondoz ondo.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Epaimahaiak aldaketak baimendu ahalko ditu deitzeko hurrenkeran, baldin eta izangaiek hori egitea aholkatzen duten inguruabarrak justifikatzen badituzte. Era berean, deitzeko hurrenkera birbanatu ahalko da Partzuergoak emandako zerbitzu publikoan eraginak izatea aurreikusten bada, betiere eragina murrizteko helburuz.

9.4. Oposizio aldiko ariketa teoriko eta praktikoak deialdi zehatz bakoitzaren gaitegiei buruzkoak izango dira, betiere deialdian jasotako aurreikuspenen arabera; ariketak honakoak izango dira:

— *Lehen ariketa.—Teorikoa (Derrigorrezkoa eta kanporatzailea)*

Bi atal izango ditu eta bi atalak gainditu beharko dira banan-banan:

- A) atala: Izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren Jakintza Orokorren Gaitegian zehaztutako gaiei buruz egindako galderei. A) atalean 10 puntu jaso ahalko dituzte, gehienez ere. Dena den, gutxienez, 5 puntu lortu beharko dituzte gainditzeko.

  Zehazki, aukeran erantzunak izango dituen galdetegi bati erantzun beharko zaio idatziz, betiere Partzuergoak bere webgunean argitaratuko dituen galderen sorta itxiari buruz; galdera sorta hori eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan argitaratuko da, onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak argitara eman aurretik. Halaber, izangaien esku jarriko da galdera sortaren ale bat Partzuergoaren bulegoetan.

  Ariketa hau zenbait deialditarako egin ahalko da batera, baldin eta Jakintza Orokorren Gaitegi bera eta galdera sorta bera badituzte. Orobat, txandaka egin ahalko da eta, horretarako, izangaiei taldeka deitu ahalko zaie, 9.3. atalean ezarritakoarekin bat.

- B) atala: Izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiko Jakintza Zehatzen Gaitegian zehaztutako gaiei buruz egindako galderei. Ariketa honen ezaugarriak oinarri zehatzetan zehaztutakoak izango dira.

  Ariketa honetatik kanpo geratuko da erabiltzailearen informatika atala, baldin eta gaitegi zehatzean azaltzen bada.

  Izangaiek B) atalean 15 puntu jaso ahalko dituzte, gehienez ere. Dena den, gutxienez, 7,5 puntu lortu beharko dituzte gainditzeko.

  Epaimahaiak beharrezko ahalmenak ditu A) atala gainditu ez duten izangaien ariketaren B) atala ez zuzentzeko.

  B) atala A) atalaren beste egun batean egiten bada eta A) atalaren kalifikazioak argitaratu badira, ez dira B) atalera bertaratuko A) atala gainditu ez dutenak, betiere 5.3. oinarrian ezarritako kasuan kautelaz aurkezteko aukerari kalterik egin gabe.

— *Bigarren ariketa.—Praktikoa (Derrigorrezkoa eta kanporatzailea)*

Izangaiek, epaimahaiak ezarrita, deialdiko Jakintza Zehatzen Gaitegiko gaiekin zerikusia duten kasu praktikoak ebatzi beharko dituzte. Ariketa honetan 25 puntu jaso ahalko dituzte, gehienez ere. Dena den, gutxienez, 12,5 puntu lortu beharko dituzte gainditzeko.

Ariketa hau idatziz egiten denean kalifikatzeko, honakoak hartuko dira kontuan: erantzunen zehaztasuna, laburpen eta azterketa gaitasuna, garatutako ideien oparotasuna, bai eta horiek azaltzeko argitasun eta zuzentasuna ere.

Ariketa hau ondoz ondoko proba praktikoak eginez bideratzen bada, epaimahaiak ahalmenak izango ditu egindakoen minimoak gainditu ez dituzten izangaiei probak egiten ez jarraitzeko.

Deialdiaren gaien barnean informatikari buruzko atala azalduz gero, hori proba praktiko zehatz baten bidez ebaluatu ahalko da, betiere ariketa hau osatzen duten proben barruan.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

— *Hirugarren ariketa.—Proba psikoteknikoak (Derrigorrezkoa baina ez kanporatzailea)*

Izangaiek proba psikoteknikoak egin beharko dituzte, bete beharreko lanpostuetako zehaztapen teknikoetara eta giza zehaztapenetara egokitzen diren ala ez ebaluatu ahal izateko. Gehienez ere 10 puntu emango dira.

**10. Euskara**

10.1. Plazek derrigorrezkoa den edo derrigorrezkoa ez den hizkuntza eskakizuna dute esleituta, eta deialdi berezi bakoitzean dago zehaztuta.

— Derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak. Derrigorrezkoa denez, ezinbestekoa izango da hizkuntza eskakizuna egiaztatzea, eta atal honetako kalifikazioa gai edo ez gai izango da.

— Derrigorrezkoa ez den hizkuntza eskakizuna duten plazak. Hizkuntza eskakizunen egiaztapena meritu moduan puntuatuko da honako baremo honen arabera:

- Derrigorrezkoa ez den 4. hizkuntza eskakizuna duten plazak:
  - 4. hizkuntza eskakizuna: 16 puntu.
  - 3. hizkuntza eskakizuna: 12 puntu.
  - 2. hizkuntza eskakizuna: 8 puntu.
  - 1. hizkuntza eskakizuna: 4,5 puntu.
- Derrigorrezkoa ez den 3. hizkuntza eskakizuna duten plazak:
  - 3. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa: 12 puntu.
  - 2. hizkuntza eskakizuna: 8 puntu.
  - 1. hizkuntza eskakizuna: 4,5 puntu.
- Derrigorrezkoa ez den 2. hizkuntza eskakizuna duten plazak:
  - 2. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa: 8 puntu.
  - 1. hizkuntza eskakizuna: 4,5 puntu.
- Derrigorrezkoa ez den 1. hizkuntza eskakizuna duten plazak:
  - 1. hizkuntza eskakizuna edo goragokoa: 4,5 puntu.

10.2. Euskararen jakintza maila egiaztatzeko probak egingo dira. Nolanahi ere, hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko probak egin aurretik, Epaimahaiak epea irekiko du, plazari dagokion hizkuntza eskakizuna aldez aurretik egiaztatu duten izangaiek egiaztapen horren ziurtagiria aurkeztu dezaten. Kasu horretan, ez dute euskara azterketa hori egin beharko.

Lortu nahi den plazaren hizkuntza eskakizuna ziurtagiri bidez egiaztatu ezean, hizkuntzaren jakintza egiaztatzeko probak prozeduraren beste fase bat izango dira.

Epaimahaiak erabakiko du noiz egingo den ariketa hori, betiere oposizio fasearen garapenaren barruan.

**11. Lehiaketa fasea**

11.1. Lehiaketaren fasea ez da kanporatzailea izango eta fase horretan lortutako puntuak ere ez dira kontuan hartuko oposizioko probak gainditzerako orduan. Puntuazio horiek ez dute inoiz ere gaindituko txanda bakoitzeko oposizio fasearen gehieneko puntuazioaren %45.

Parte hartzeko eskabidea egiterakoan alegatutako merituak baino ez dira baloratuko. Hautaketa prozesua izapidetu bitartean, epaimahaiak gutxienez 10 egun baliodunekoepea irekiko du bigarren ariketa egingo duten eta ordura arte egindako ariketa kanporatzaileak gainditu dituzten izangaiek eskaera egiterakoan alegatutako merituak agirien bidez egiaztatu ditzaten.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Era berean, hasiera batean hautaketa prozesutik kanpo geratu, gaitzespen horren aurkako erreklamazioa aurkeztu eta behin betiko ebazpenaren zain dauden izangaiek ere merituen egiaztapena aurkeztu beharko dute adierazitako epean, betiere 5.3. oinarrian ezarritakoari jarraituz.

Epaimahaiak aurkezteko zehaztutako epean behar bezala egiaztatu ez diren merituak ez dira inola ere balioetsiko. Horrez gain, eskaerak aurkezteko epea itxi baino lehenagoko inguruabarrei buruzko merituak baino ez dira balioetsiko.

Merituak egiaztatzerako orduan, agiri originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira.

Kopiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Giza Baliabideen Zuzendariordetzak edo fede emaile publiko eskudunak konpultsatu ahal izango dituzte. Horretarako, agiri originala eta kopia aurkeztu beharko dira.

11.2. Honako meritu hauek balioetsiko dira lehiaketaren fasean:

1. *Esperientzia*

I. Lortu nahi den plazako eginkizunen edukiarekin zerikusia duten lanpostuetan jardutean izandako esperientzia balioetsiko da.

Izangaiek 17 puntu jaso ahal izango dituzte, gehienez, betiere honako A) eta B) ataletan zehaztutako baremoei jarraituz:

— *A) atalean:* Eskainitako plazako eginkizunen antzeko edukia duten lanpostuetan administrazio publikoen zerbitzura funtzionario edo lan kontratudun langile moduan lan egiteagatik, gehienez ere, 17 puntu.

Esperientzia baloratuko da deitutako plazaren eginkizunekiko antzekotasun mailari men eginda, betiere behean zehazten diren eta egiaztatutako hilabete bakoitzeko puntuen gainean aplikatu behar diren kopuruen arabera banaturik eta gehienez lor daitekeen puntuazioa aintzat harturik.

Esperientzia lehenik eta behin baloratuko da antzekotasun mailarik handiena duenaren arabera eta segidan antzekotasun maila txikiagoarekin egiaztatutakoaren arabera, betiere azpiatalen honako banaketa honen arabera:

- A1: balorazioaren %100:
  - Baremoa: 0,15 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - A1, gehieneko puntuazioa: 17 puntu.
- A2: balorazioaren %75:
  - Baremoa: 0,1125 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - A2, gehieneko puntuazioa: A1eko gehieneko puntuazioari A1ean lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 12,75 puntukoa izanik.
- A3: balorazioaren %50:
  - Baremoa: 0,075 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - A3, gehieneko puntuazioa: A2ko gehieneko puntuazioari A2an lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 8,5 puntukoa izanik.
- A4: balorazioaren %25:
  - Baremoa: 0,0375 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - A4, gehieneko puntuazioa: A3ko gehieneko puntuazioari A3an lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 4,25 puntukoa izanik.

Oinarri zehatzek esperientzia baloratzeko irizpide zehatzak ezartzen dituzte azpiatal bakoitzean. Ezingo da baloratu oinarri zehatzetan ezarritakoaz besteko esperientzia.

A) atala balioesteko ondorioetarako, herri administraziotzat hartzen dira Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa bera, Estatuaren Administrazio Orokorra, autonomia erkidegoetako administrazioak, toki administrazioa osatzen duten erakundeak, bai eta herri administrazioen menpe dauden edo horiei loturik dauden erakunde publikoak

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

eta zuzenbide publikoko entitateak ere, betiere Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 2.2. artikuluaren a) eta c) letretan ezarritakoaren arabera. Atal honetan, halaber, balioetsiko da sektore publikoko erakundeetako langile lan-kontratudun gisa izandako esperientzia, betiere instantziak aurkezteko epearen amaieran hautagaiaren lanpostua absortzio edo subrogazio bidez integratu bada paragrafo honetan zehaztutako herri administrazioetan.

A) atalean ez dira balioetsiko administrazioko ezohiko lan berezi eta zehatzetako kontratu administratiboak, zerbitzu zibilak edo merkataritza zerbitzuak errentatzeko kontratuak eta administrazio publikoentzako zerbitzugintzagatiko kontratuzko harremana duten sektore pribatuko enpresetako lanpostuetan lortutako esperientzia. Nolanahi ere, B) atalean balioetsi ahal izango dira.

— *B) atalean,* A) atalean zehaztutako enpresa eta erakunde desberdinetako lanpostuetan langile gisa izandako esperientzia baloratuko da lortu nahi den plazaren eginkizunen antzeko edukia duten lanpostuetan; gehienez ere, 8 puntu emango dira.

Esperientziaren balorazioa deitutako plazaren eginkizunekiko antzekotasun mailari men eginez egingo da, betiere egiaztatutako hilabete bakoitzeko esleitu beharreko puntuen gainean eta gehienez ere lor daitezkeen puntuen gainean aplikatzeko zehaztutako beheko portzentajeen arabera banatuta.

Esperientzia lehendabizi balioetsiko da antzekotasun mailarik handiena duena kontuan hartuz eta ondoz ondo antzekotasun maila txikiagoarekin egiaztatutakoari men eginez, honako azpiatal hauen araberako banaketari jarraituz:

- B1: balorazioaren %100:
  - Baremoa: 0,07 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - B1, gehieneko puntuazioa: 8 puntu.
- B2: balorazioaren %75:
  - Baremoa: 0,0525 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - B2, gehieneko puntuazioa: B1eko gehieneko puntuazioari B1ean lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 6 puntukoa izanik.
- B3: balorazioaren %50:
  - Baremoa: 0,035 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - B3, gehieneko puntuazioa: B2ko gehieneko puntuazioari B2an lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 4 puntukoa izanik.
- B4: balorazioaren %25:
  - Baremoa: 0,0175 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko.
  - B4, gehieneko puntuazioa: B3ko gehieneko puntuazioari B3an lortutako puntuak kentzearen emaitza, muga 2 puntukoa izanik.

Oinarri zehatzek azpiatal bakoitzean balioetsi beharreko esperientzia zehaztuko dute. Ezingo da baloratu oinarri zehatzetan ezarritakoaz bestaldeko esperientziarik.

II. *Esperientzia balioesteko arauak:* Eskaerak aurkezteko epe amaieraren aurreko aldietakoak baino ez dira zenbatuko. Zenbaketa egingo da balioespenaren azpiatal bakoitzean egiaztatutako epeen egunak batuz, eta behin eginda, hilabetetik beherako zatikiak kontuan hartu gabe. Ondorio horietarako, hilabetea 30 egun naturaleko batuketa izango da.

11.1. oinarrian zehaztutakoaren arabera, esperientzia balioetsi ahal izateko eskaera orrian alegatu behar izan da; hala ere, egiaztatutako esperientzia epeak eskaerak aurkezteko epea amaitu arte luzatu ahalko dira, betiere izangaiak eskaera aurkeztu duen data zehatza alde batera utzita.

Enpresa pribatuetako eta zuzenbide pribatuetako erakundeetako esperientzia profesionala honako agiri hauek aurkeztuz egiaztatuko da:

a) Gizarte Segurantzak emandako lan bizitza.

b) Enpresaren egiaztagiria; bertan epeak, kategoria eta eginkizunak azalduko dira.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Bi egiaztagiriren artean kontraesanak egonez gero, Gizarte Segurantzaren egiaztagiriari lehentasunezko balioa emango zaio, epaimahaiak egokitzat jotzen dituen egiaztapenei kalterik egin gabe.

Administrazio publikoren bateko funtzionario edo lan kontratudun langile moduan lan egin izanez gero, administrazioak berak egindako ziurtagiria aurkeztu besterik ez dago. Ziurtagirian, izandako maila eta gauzatutako jarduerak jaso behar dira. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko lan kontratudun langile gisa lortu badu esperientzia, adierazitako epean alegatu besterik ez dago.

Emandako dokumentazioan, izandako lanpostua eta bertan egindako funtzioak egiaztatu beharko dira.

Lanaldi partzialeko kontratazioek dagozkien murrizketa portzentuala izango dute, baloratu beharreko denbora tarteen zenbaketan.

Ez dira zenbatuko bi aldiz hainbat erakundetan aldi berean egindako epeak, lanaldi partziala ez badira izan eta bien artean, gehienez, ehuneko ehuneko dedikazioa batzen badute.

Inola ere ez dira balioetsiko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 96.1. artikuluan aurreikusitako lan kontratukoak ez diren behin-behineko langileen lanpostuetako zerbitzugintza, bekak eta prestakuntzarako praktikak. Era berean, praktika aldiko funtzionario gisa edo probaldiko lan kontratudun langile gisa izandako esperientzia ere ez da balioetsiko, baldin eta aldi horiek ez badira gainditu.

Dagokion deialdi zehatzak aukera ematen duenean eskatutako titulazioaren ordez lan esperientziako aldi batzuen egiaztapenarekin parte hartzeko, aldi horiek ez dira meritu gisa hartuko.

2. *Bestelako titulazioak*

I. Meritu honetan, 4 puntu jaso ahal izango dira gehienez ere, honako kontzeptu hauen artean banatuta:

A) Unibertsitateko goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan, ikasketa maila bereko edo hortik gorako beste ikasketa titulazio ofizial batzuk izatea balioetsiko da, betiere parte hartzeko baldintza moduan eskatutakoak ez bezalakoak badira. Batez ere, ondoko tituluak baloratuko dira:

— Tituluak: lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria, betiere, eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: 4 puntu.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan araututako gradu titulua eta unibertsitate masterreko titulua izatea, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia dutenak. Horiek aurreko araudiaren arabera dagokion titulazioaren balio berbera izango dute.

— Doktore titulua, plazaren funtzioekin zerikusia duena: 2 puntu.

— Plazaren funtzioekin zerikusia duen Unibertsitateko master titulua, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 10. artikuluan arautua: 2 puntu.

Doktore tituluagatiko edo Master tituluagatiko puntuak emanez gero, doktoretzako edo masterreko ikastaroak ez dira prestakuntzaren arloan balioetsiko.

B) Unibertsitateko erdi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan ikasketa maila bereko edo hortik gorako beste ikasketa titulazio ofizial batzuk izatea balioetsiko da, betiere parte hartzeko baldintza moduan eskatutakoak ez bezalakoak badira. Batez ere, ondoko tituluak baloratuko dira:

— Tituluak: lizentziatua, arkitektoa edo ingeniaria, betiere, eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: 3 puntu.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 9. eta 10. artikuluetan araututako gradu titulua eta unibertsitate masterreko titulua izatea, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia dutenak. Horiek aurreko araudiaren arabera dagokion titulazioaren balio berbera izango dute.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

— Tituluak: diplomatua, arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa, betiere eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: 2 puntu.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 9. artikuluan araututako gradu titulua izatea, lanpostuaren eginkizunekin zerikusia duena. Horrek aurreko araudiaren arabera dagokion titulazioaren balio berbera izango du.

— Plazaren funtzioekin zerikusia duen unibertsitateko master titulua, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 10. artikuluan arautua: 2 puntu.

Master tituluagatiko puntuak emanez gero, doktoretzako ikastaroak ez dira prestakuntzaren arloan balioetsiko.

C) Gutxienez Bigarren Mailako Lanbide Heziketako edo Batxilergoko titulazioa edo baliokidea eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan, ikasketa maila bereko beste ikasketa titulazio ofizial batzuk izatea balioetsiko da, betiere parte hartzeko baldintza moduan eskatutakoak ez bezalakoak badira. Batez ere, ondoko tituluak baloratuko dira:

— Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea, betiere eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: 2 puntu.

D) Lehen Mailako Lanbide Heziketako edo Eskola Graduatuko titulazioa edo baliokidea eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan ikasketa maila bereko edo hortik gorako beste ikasketa titulazio ofizial batzuk izatea balioetsiko da, betiere parte hartzeko baldintza moduan eskatutakoak ez bezalakoak badira. Batez ere, ondoko tituluak baloratuko dira:

— Bigarren Mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea, betiere eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: 2 puntu.

— Lehen Mailako Lanbide Heziketako titulua edo baliokidea, betiere eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusirik badu: puntu 1.

II. *Bestelako titulazioen jabetza baloratzeko arauak:* Ez dira inola ere balioetsiko aldi berean meritu moduan alegatutako beste bat lortzeko beharrezkoak diren titulazioak eta izangaiak titulazio betekizuna betetzen duela egiaztatzen duten titulazioak.

Parte hartzeko baldintza gisa hartutako titulazioa ez den beste bat duela egiaztatzeko, izangaiak bi agiri egiaztatu beharko ditu: baldintza betetzen duela egiaztatzeko erabili beharrekoa eta meritu gisa alegatutakoa.

Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioa ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da.

3. *Prestakuntza ikastaroak*

I. Atal honetan jarraian jasotako ataletan aipatzen diren ikastaroak egin edo eman izana baloratuko da.

Behar bezala egiaztatu beharko da ikastaro guztiak egin izana. Horretarako, dagokion diploma edo ziurtagiria aurkeztu beharko da, ikastaroaren eskola orduak jasotzen dituena. Aprobetxamendua baloratzen duen ikastaro bat baldin bada, ikastaro hori soilik hartuko da kontuan aprobetxamendu hori positiboa izan baldin bada.

Hainbat ediziotan arlo berari buruzko ikastaroak egin baldin badira, berriena baino ez da kontuan hartuko edo ordu kopururik handiena egiaztatzen duena, salbu eta, aldaketa tekniko edo normatiboen ondorioz, epaimahaiak ikastaro horiek eguneratzea beharreztkotzat jotzen badu. Kasu horretan, soilik maila handieneko ikastaroa edo jarduera hartuko da kontuan.

Ez dira baloratuko titulazio akademiko ofizial bat lortzeko ikasketa planen baitan egindako ikastaroak; ikastaro horiek beste titulazio batzuei buruzko atalean baloratuko dira, kasuan kasu.

Meritu honetan, 4 puntu jaso ahal izango dira gehienez ere, honako atal hauen artean banatuta:

A) Erakunde ofizialek edo ospe handiko erakundeek antolatzen dituzten eta eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusi zuzena duten 15 orduko edo hortik

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

gorako ikastaroak egiteagatik, 0,008 puntu orduko eta puntu bat ikastaroko; eta gehienez ere, 2,5 puntu eta puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

15 orduko edo hortik gorako ikastaroak emateagatik, 0,16 puntu orduko eta gehienez ere 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.

Atal honetan ez dira kontuan hartuko B) eta C) ataletan adierazitako ikastaroak.

B) Erakunde ofizialek edo ospe handiko erakundeek antolatzen dituzten eta eskainitako lanpostuko eginkizunen mesederako diren 15 orduko edo hortik gorako informatika ikastaroak egiteagatik, 0,005 puntu orduko eta puntu bat ikastaroko; eta gehienez ere, puntu 1.

15 orduko edo hortik gorako ikastaroak emateagatik, 0,010 puntu orduko eta gehienez ere 1,5 puntu ikastaro bakoitzeko.

Kidegoetako informatikari plazetarako deialdi zehatzetan, haien funtzio espezializatuen informatika ikastaroak A) atalean baloratuko dira. Plazaren eginkizunetarako onuragarria izanik, erabiltzailearen informatika ikastaroak B) atalean baloratuko dira.

Hala adierazten den oinarri zehatzean, atal honetan IT txartelen egiaztapena baloratuko da, bai eta aplikazio horien gaineko bestelako ikastaroak ere, oinarrietan zehaztutakoari jarraituz. Kasu honetan, B) atala honetarako gehienez lor daitekeen puntuazioa 2 puntukoa izango da.

C) Erakunde ofizialek edo ospe handiko erakundeek antolatzen dituzten eta eskainitako lanpostuko eginkizunen mesederako diren 15 orduko edo hortik gorako lan arriskuen prebentzioari, kalitatea bermatzeko sistemei, ingurumenari edota giza baliabideen kudeaketa trebetasunei (talde lana, denboraren kudeaketa, etab.) buruzko ikastaroak egiteagatik, 0,005 puntu orduko eta puntu bat ikastaroko; eta gehienez ere, 1 puntu.

15 orduko edo hortik gorako ikastaroak emateagatik, 0,010 puntu orduko eta gehienez ere puntu 1 ikastaro bakoitzeko.

Kidegoetan, lan arriskuak prebenitzeko teknikari, kalitate teknikari edo ingurumen teknikarien plazetarako deialdi zehatzetan, haien funtzio espezializatuen ikastaroak A) atalean baloratuko dira. Plazaren eginkizunetarako onuragarria izanik, prebentzio, kalitate edo ingurumenari buruzko ikastaroak C) atalean baloratuko dira.

Hala adierazten den oinarri zehatzean, lan arriskuen prebentziorako zenbait gairi buruzko prestakuntza zehatza baloratuko da, oinarrietan zehaztutakoari jarraituz. Kasu honetan, C) atala honetarako gehienez lor daitekeen puntuazioa 2 puntukoa izango da.

D) Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan, unibertsitateek emandako graduondoko ikastaroa gainditu eta egin izana balioetsiko da, betiere eskainitako lanpostuko eginkizunekin zerikusi zuzena badute. Gehienez ere, 2 puntu jaso ahal izango dira, honako baremo honen arabera:

— 500 orduko edo hortik gorako graduondokoa: 2 puntu.
— 250 orduko edo hortik gorako eta 500 ordu baino gutxiagoko graduondokoa: puntu 1.

Atal honek aipatzen dituen graduondoko ikastaroak urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren Hamaikagarren Xedapen Gehigarrian daude arauturik, edota horren aurretiko legedian.

Urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuaren 10. artikuluan araututako Unibertsitateko Master tituluak ez dira atal honetan balioetsiko, 2.A. atalean eta, hala badagokio, 2.B. atalean baizik.

Unibertsitatekoa ez den titulazioa eskatzen duten plazetarako deialdietan, A), B) edo C) ataletako prestakuntza ikastaro gisa baloratuko dira.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

E) Hala adierazten den oinarri zehatzean, txartel profesionalen jabetzea baloratuko da, oinarrietan zehaztutakoari jarraituz.

4. *Hizkuntzen ezagutza*

I. Gehienez ere 2 punturekin baloratuko da, Hizkuntzen Europarako Erreferentzi Marko Bateratuko mailen baremo honen arabera:

A) Unibertsitateko erdi mailako edo goi mailako titulazioa eskatzen duten lanpostuetarako deialdietan eta administrazioko langileen lanpostuetarako deialdietan, ingelesaren, frantsesaren edo alemanaren ezagutza balioetsiko da, honako baremo honen arabera:

— C2 maila: 1,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

— C1 maila: hizkuntza bakoitzeko puntu 1.

— B2 maila: 0,5 puntu hizkuntza bakoitzeko.

B) Aurreko atalean jaso ez diren gainerako deialdietan ingelesaren ezagutza baloratuko da, baremo honen arabera:

— C2 maila: 1,5 puntu.

— C1 maila: puntu 1.

— B2 maila: 0,5 puntu.

II. Hizkuntzen jakite maila baloratzeko, honako egiaztapenak hartuko dira kontuan:

— C2 maila:

- Ingelesa:
  - Certificate of Proficiency in English (CPE).
  - PTE General: Pearson Test Of English (Level 5).
  - Trinity College ISE 4.
  - IELTS 7.5+ (British Council).
- Frantsesa:
  - Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C2 (CIEP).
  - Diplôme de Hautes Etudes Françaises (DHEF) (AF).
  - DAFA (Diplôme Approfondi de Français des Affaires).
  - DFP Affaires C2.
- Alemana:
  - Zentrale Oberstufenprüfung (ZOP).
  - Kleines Deutsches Sprachdiplom (KDS).
  - Grosses Deutsches Sprachdiplom (GDS).
  - Wirtschaftssprache Deutsch (WD).

– C1 maila:

- Ingelesa:
  - HEO gaitasun maila.
  - Certificate in Advanced English (CAE).
  - PTE General: Pearson Test Of English (Level 4).
  - Trinity College ISE 3.
  - BEC Business English Certificate Cambridge (HIGHER Good & Exceptional).
  - IELTS 6.5/7.0 (British Council).
- Frantsesa:
  - HEO gaitasun maila.
  - DALF.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

    - Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C1 (CIEP).
    - Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS) (AF).
    - DSLCF (Diplôme Supérieur de Langue et Culture Françaises).
    - DFA2 (Diplôme de Français des Affaires 2).
    - DFP Affaires C1 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C1).
  - Alemana:
    - HEO gaitasun maila.
    - Goethe Zertifikat C1 (ZMP).
    - Prüfung Wirtschaftsdeutsch International.
    - Zentrale Mittelstufenprüfung (ZMP).
    - TELC Deutsch C1.
    - Oberstufe Deutsch.
    - TestDaf Niveaustufe, 4. eta 5. maila.
    - Deustche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH).
- B2 maila:
  - Ingelesa:
    - HEO maila aurreratua.
    - First Certificate in English (FCE).
    - PTE General: Pearson Test Of English (Level 3).
    - Trinity College ISE 2.
    - BEC Business English Certificate Cambridge (VANTAGE Good & Exceptional).
    - IELTS 5.0/5.5/6.0 (British Council).
  - Frantsesa:
    - HEO maila aurreratua.
    - DELF 2e degré.
    - Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B2 (CIEP).
    - Diplôme de Langue Française (DL) (AF).
    - DFA1 (Diplôme de Français de Affaires 1).
    - CFJ (Certificat de Français Juridique).
    - DFP Affaires B2 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires B2).
    - DFP Juridique B2.
    - B2 DFP Médical B2.
    - B2 DFP Secrétariat B2.
  - Alemana:
    - HEO maila aurreratua.
    - Goethe Zertifikat B2.
    - Zertifikat Deutsch+.
    - Zertifikat Deutsch für den Beruf.
    - Deutsch für den Beruf (ZDfB).
    - TELC Deutsch B2.
    - Mittelstufe Deutsch (MD).
    - TestDaf Niveaustufe, 3 maila.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Aurreko apartatuetan adierazitako hizkuntzaren ezagutzari buruzko egiaztagiriak edo nazioarteko onespena duten egiaztagiri baliokideak baino ez dira balioetsiko, betiere kasuan kasuko hizkuntzaren sorterriko unibertsitateek edo institutu ofizialek egin badituzte.

**12. Epaimahaiaren proposamena**

12.1. Oposizio faseko ariketak eta lehiaketa faseko merituak kalifikatuko dira deialdi zehatz bakoitzean ezarritakoarekin bat etorriz. Hautaketa prozesuaren azken kalifikazioa lortutako puntuazioen batuketak zehaztuko du.

Horretarako, zerrenda bakarra egingo da eta bertan hautaketa proba guztiak gainditu dituzten izangai guztiak azalduko dira, lortutako puntuazio osoaren arabera ordenatuta, betiere parte hartu duten txanda alde batera utziz.

Ariketen eta merituen kalifikazioa amaituta, epaimahaiak argitara emango ditu behin-behinean proposatutako izangaien izen-abizenak, betiere lortutako puntuazio ordenari eta eskainitako postuen artetik adierazitako lehentasun ordenari jarraituz, baldin eta dagokion txandan eskatutako hizkuntza eskakizunaren baldintza betetzen badute, bai eta lanpostuen zerrendan ezarritako gainerako baldintzak ere.

12.2. Txanda askean eta minusbaliatuentzako txandan plazak eskaintzen dituzten deialdiei dagokienez, ezgaituentzako txandara aurkeztutako izangairen batek ariketak gainditzen baditu eta txanda horretan plazarik lortzen ez badu baina haren puntuazioa txanda askeko beste izangai batzuena baino altuagoa bada, txanda askean sartuko da haren puntuazio hurrenkeraren arabera. Era berean, minusbaliotasun intelektuala edo bestelako minusbaliotasun ez zehatza egiaztatzen duten pertsonek bete beharreko plazen deialdiei dagokienez, ezgaitasun intelektuala duen izangairen batek minusbaliotasun ez zehatzeko txandako izangaiek baino puntuazio altuagoa lotzen badu eta haren ezgaitasunerako gordetako plazarik geratzen ez bada, minusbaliotasun ez zehatzeko txandan sartuko da haren puntuazio hurrenkeraren arabera.

Deialdian sartzen badira minusbaliotasun intelektualeko pertsonentzako txandarako gorde beharreko plazak eta horiek hutsik geratzen badira, lehendabizi minusbaliotasun ez zehatzeko pertsonentzako txandan gordetakoei gehituko zaizkie eta bigarrenik txanda askearen bidez deitutako plazei, betiere deialdian txanda horietarako gordetako plazak agertzen direnean. Halaber, minusbaliotasun ez zehatza duten pertsonentzako txandan gordetako plazei dagokienez, hutsik geratzen badira, txanda askean gordetakoei gehituko zaizkie, deialdi horretan bi txandetarako gordetako plazak daudenean, betiere hurrengo lan eskaintza publikoetan minusbaliatuentzako txandan izan daitekeen plaza kopuruaren gehikuntzari kalterik egin gabe.

12.3. Berdinketarik egonez gero, Emakumezkoen eta Gizonezkoen Arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, emakumezkoen aldeko lehentasuna ezarriko da emakumeen ordezkaritza %40koa baino txikiagoa bada deitutako lanpostuaren kategoria profesionalean; salbu eta beste izangaiak sexu arrazoiengatik diskriminatzaileak ez diren beste arrazoi batzuk baditu eta horiek aipatutako neurria ez ezartzea justifikatzen badute; esate baterako, laneratzeko eta lanaren sustapenerako zailtasunak dituzten beste talde batzuetako kidea bada.

Adierazitako irizpidea ezin bada aplikatu edo berdinketak bere horretan badirau, honako lehentasun ordenaren arabera esleituko da:

1. Oposizio faseko ariketa praktikoan puntu gehien lortu dituenaren alde.
2. Oposizio faseko zenbaketa osoan puntu gehien lortu dituenaren alde.
3. Oposizio faseko lehen ariketan puntu gehien lortu dituenaren alde.
4. Lehiaketa oposizioko oinarrietan zerrendatutako merituetan puntu gehien lortu dituenaren alde, betiere adierazitako ordenari jarraituz.
5. Deialdiaren gai zehatzei buruzko proba bat egingo da berdinketa hausteko.

12.4. Gainditutakoen behin-behineko zerrendak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita, interesdunek hamar egun baliodunekoepea izango dute, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egiteko.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Hala badagokio, erreklamazio horiek ebatzita, epaimahaiak kontratazioko proposatutako gainditauen zerrenda argitaratuko du puntuazio ordenaren arabera; kopuruak ezingo ditu deitutako plazak gainditu. Gauzak horrela, zerrenda Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerenteari igorriko dio, lan kontratazioko beharreko proposamena egin dezan. Orobat, azken bilkurako akta ere igorriko du; akta horretan puntuazio hurrenkeraren arabera agertuko dira probak gainditu dituzten baina deitutako plazen kopurua gainditzen duten izangai guztiak. Hori guztia hala egingo da, gerta baitaiteke plaza eskuratu duten izangairen bat plazaz ez jabetzea, baina bestelako eskubiderik edo aukerarik gabe.

12.5. Kalifikazio epaimahaien ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egin behar duen organo eskudunarentzat, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen indarreko Legeak ezarritakoaren arabera bidezkoa izan daitekeenari kalterik egin gabe.

12.6. Destinoen adjudikazioa:

a) Dagokion deialdian lan egiteko kokaleku desberdina duen plaza bat baino gehiago eskaintzen denean, Giza Baliabideen Zuzendariordetzak izangaiei eskatuko die destinoaren adjudikazioari dagokion lehentasun ordena adierazteko. Aukeraketa hori hautaketa prozesuaren barruan egokientzat jotzen den unean egin ahalko da.

b) Oinarri zehatzek destinoaren adjudikazioa lehiaketa bidez egin behar dela ezartzen dutenean (deialdiak espezialitate desberdinak dituzten postuak jasotzen baititu), Balorazio Batzorde bat osatuko da; batzorde hori oposizio lehiaketako epaimahaiko kideek osatuko dute, IVAPek izendatutakoak bazter utzita, azken horien eginkizunak amaiturik egongo baitira.

Espezialitate bakoitzeko destinoa lortzeko izangai bakoitzak izango duen puntuazioa hautaketa prozesu osoan lortutakoa izango da, betiere esperientziaren merituarena alde batera utzita; izan ere, azken horri herri administrazioko postuetako esperientzia zehatzaren puntuazioa gehituko zaio dagokion espezialitatean, betiere A1 baremoa aplikatuz (0,15 puntu egiaztatutako hilabete bakoitzeko, eta gehienez 17 puntu).

c) Minusbaliatuentzako txandan onartutako pertsonek Zuzendaritza Batzordeari eskatu ahalko diote Partzuergoaren lurralde eremu barruko plazen lehentasun ordena aldatzeko, mendekotasun pertsonaleko arrazoiengatik, joan etorriak egiteko zailtasunengatik edo antzekoengatik; horiek guztiak behar bezala egiaztatu beharko dira. Zuzendaritza Batzordeak aldaketa erabaki ahalko du behar bezala justifikaturik dagoenean eta minusbaliatuaren postu sarbideragarritasuna ahalbidetzeko beharreko lehentasun ordenan ahalik eta aldaketarik gutxien egitera mugatuko da.

Destinoa adjudikatzeko eskaeretan ezgaitasuna duten izangaiek postuen egokitzapena eskatu ahalko dute. Eskaerari gai horretan eskuduna den organoak emandako txostena erantsi beharko zaio, betiere egokitzapenaren egokitasuna egiaztatzeko, bai eta eskatutako postuen eginkizunak betetzeko bateragarritasuna ere.

Edonola ere, lanpostuaren eginkizun propioak betetzeko bateragarritasuna baloratuko da bertan egin daitezkeen egokitzapenak kontuan hartuz.

d) Destinoak aukeratuko dira hautatuak izan diren hizkuntza eskakizuna gorabehera, betiere derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten postuak estalita geratzen direnean. Ondorio horietarako, hizkuntza eskakizunen postuen estaldurak erabateko lehentasuna izango du.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**13. Dokumentazioa aurkeztea eta kontratazioa**

13.1. Proposatutako izangaiek 3. oinarrian ezarritako partaidetza baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak aurkeztu beharko dituzte 20 egun naturaleko epean, betiere gainditutakoen zerrendak argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren edo agiri baliokidearen fotokopia konpultsatua. Bertan, identitatea, nazionalitatea eta jaioteguna azalduko dira.

   Atzerritarra izanez gero, agiri bidez egiaztatu beharko da 3.1.a) oinarriko betekizunak betetzen direla.
2. Tituluaren fotokopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren egiaztagiria. Ezinbestekoa da lanpostua eskuratzeko. Hori hala ezartzen da oinarrien eranskinean.
3. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko zerbitzu medikoek egindako osasun azterketa, eginkizunak betetzeko gaixotasunik eta akats fisiko eta psikikorik ez duela egiaztatzeko.
4. Diziplinazko espediente baten ondorioz edozein administrazio publikotako zerbitzutik kanpo utzi ez dutela eta eginkizun publikoak betearazteko ezgaituta ez dagoela adierazteko aitorpena.

   Era berean, atzerritarrek egiaztatu egin beharko dute euren estatuan funtzio publikoan jardutea eragozten dien diziplinazko zehapenaren edo kondena penalaren mende ez daudela.
5. Administrazio Publikoen Zerbitzura dauden Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitakoa kontuan hartuta, bateraezintasunagatiko legezko auziren baten mende ez dagoela adierazteko aitorpena.
6. Deialdi zehatzean eskatutako gainerako betekizun berezien agiri bidezko egiaztapena.
7. NAN tamainako argazki bi.

13.2. Agiriak egiaztatzeko orduan, originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztuko dira.

Kopiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Erregistro Orokorrean edo fede emaile publiko eskudunarenean konpultsatu ahal izango dira. Horretarako, agiri originala eta kopia aurkeztu behar izango dira.

13.3. Adierazitako epean, ezinbestean ez bada, izangaiek euren agiriak aurkezten ez badituzte edo eskatutako betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez badute, ezin izango dituzte kontratatu eta euren jarduketa guztiak ezeztatu egingo dira, eskabidean gezurra esateagatik izan dezaketen erantzukizunari kalterik egin gabe.

Kasu horretan, hautaketa prozesua gaindituta, epaimahai kalifikatzaileak ezarritako azken puntuazio ordenan hurrengo dagoen izangaiaren aldeko kontratazio proposamena egingo du gerenteak.

Horretarako, izangaiari 13.1. puntuan ezarritako dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio adierazitako epearen barruan.

13.4. Zuzendaritza Batzordeak izangai proposatuen kontratazioa erabakiko du; horiek kontratua izenpetu beharko dute 30 egun baliodunneko epean, betiere erabakiaren jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Zuzendaritza Batzordeak kontratuaren sinadura baimendu ahalko du kontratazio erabakia hartzen den biharamunetik hasita, arestian aipatutako mugarekin. Justifikatutako kasuetan epe horren luzapena baimendu ahalko da.

Partzuergoak kontratua behin betiko bihurtu ahalko du proposatutako pertsonak Partzuergoari zerbitzuak ematen badizkio hori egitea ahalbidetzen duten modalitateen bidez, hala nola txanda kontratuaren bidez.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**14. Probaldia**

14.1. Lan kontratuak probaldia egin beharko dela adieraziko du. Probaldiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Hitzarmen Kolektiboan (kontratazioaren unean indarrean dagoena) aurreikusitako iraupena izango du.

Kontratu mota edozein dela ere, langileak aldez aurretik adierazitako epe berean Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan eginkizun berberak bete eta gainditu dituenean, ez da probaldirik egingo.

Probaldian zehar langilea aldi baterako ezintasunagatik, amatasunagatik edo adopzioagatik edo harreragatik bajan badago, probaldia eten egingo da.

14.2. Probaldia ebaluatu eta kalifikatu egingo da, eta, horretarako, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

— Zeregin eta betebeharren betearazpena.
— Lanaren kalitatea.
— Ikasteko jarrerak.
— Ekimena.
— Erantzukizuna eta egokitzapena.
— Lankidetzarako jarrerak.
— Bezeroekiko eta laguntzaileekiko harremanak.

Zerbitzugintzaren ardura duen zuzendariak edo berak eskuordetutako pertsonak egingo du ebaluazioa. Ebaluazioaren emaitza «Gai» edo «Ez gai» izango da. Emaitza Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko Gerenteari bidaliko zaio. «Ez gai» modura kalifikatuz gero, ezarritako epea amaitu aurretik igorriko da, Zuzendaritza Batzordeak bidezko erabakia har dezan.

Probaldia gainditu ezean, Langileria Batzordeari aldez aurretik jakinarazita, Zuzendaritza Batzordearen ebazpen arrazoituaren bidez, kontratua deuseztatu ahal izango da. Premiazkoa izanez gero, gerentearen ebazpen arrazoituaren bidez deuseztatu ahal izango da kontratua, eta, egiten den lehenengo bileran, ebazpen horren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari.

14.3. Partzuergoak kontratatutako langilea prestakuntza praktikak egiten jarri ahalko du; horiek gauzatuko dira lanpostua benetan eskuratu gabe. Prestakuntza horren denbora kasu bakoitzean ezarritakoa izango da, hitzarmen kolektiboaren arabera aplikagarria den gehieneko probaldiarekin. Prestakuntza praktikaldi horretan interesdunak deitutako plazaren lan kategoria izango du; hala ere, ohiko lanaldiaren edo txandakakoaren erregimena aurrera eraman beharreko jarduerari hobekien egokitzen zaiona izango da, betiere hitzarmenaren arabera betetako ordainsariak jasoz. Kasu horretan lanpostua benetan eskuratuko da prestakuntza epea amaitzen denean.

**15. Aldi baterako lan poltsak**

15.1. Behin deialdiak ebatzita, deitutako plazen kopurutik gorakoak diren eta oposizio faseko ariketak gainditu dituzten izangaien zerrendak erabili ahalko dira postu berdinetan edo antzekoetan pertsonalaren aldi baterako premiak estaltzeko.

15.2. Halaber, oposizio faseko lehen ariketa egiten denetik, lan poltsa gisa erabili ahalko dira gainditutakoen zerrendak jadanik ebaluatutako probetan lortutako batuketaren ondoriozko puntuazio hurrenkeraren arabera. Ondoz ondoko ariketak egin ahala, lortutako puntuazioak jasoz joango da, ahalik eta ariketa gehien gainditu izana lehentasun irizpide gisa ezarriz. Lortutako puntuazioen batuketak zehaztuko du izangaien ordena, gainditu ez diren ariketak barne.

15.3. Hautaketa osatu ahalko da merituak ebaluatuz edota puntuaziorik altuena duten 10 izangaiei mugatutako proba zehatzak eginez (azken horiek 10eko taldeak ondoz ondo eratuz handitu ahalko dira).

15.4. Oposizio faseko lehen probaren tramitazioa denboran luzatuko dela aurreikusiz gero, lan poltsa eratzeko deialdiaren gaitegiari buruzko jakintza probak egitean lan

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

poltsetan parte hartzeko eskatu zuten izangai onartuei deitu ahalko zaie; hautaketa hori osatu ahalko da aurreko paragrafoan adierazitakoaren arabera.

Horretarako, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaeran jarri beharko da ea lan poltsetan parte hartu nahi den ala ez.

15.5. Txandakako kontratuak betetzeko kontratazioetan beharrezkoa izango da, gainera, kontratu modalitate horretarako indarreko legeriak ezarritako baldintzak betetzea. Egoeran aldaketarik dagoenean, interesdunak Partzuergoari jakinarazi ahalko dio lan poltsan aintzat hartzeko, betiere indarrean egonez gero.

15.6. Kontratatua izan ahal izateko, lanposturako ezarritako baldintzak bete beharko dira eta hori aldez aurretik egiaztatu, giza baliabideek hala eskatuta.

Ez dira deituak izango bete nahi den lanposturako ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten izangaiak. Deia interesdunek emandako datuen arabera egingo da.

Lan poltsan azaltzeko, euskara ez da baztertzailea izango. Aldi baterako kontratazioaren unean, bete beharreko postuak derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duenean, haren egiaztapena ezinbesteko baldintza izango da eta ez dira deituak izango egiaztatu ez duten izangaiak. Bete beharreko postuak derrigorrezkoa ez den hizkuntza eskakizuna daukanean, euskarak puntuak emango ditu meritu gisa oinarrietan ezarritakoari jarraituz.

Deialdi batean eskainitako postu finko guztiek derrigorrezko profila dutenean, euskara kalifikazioak «gai» edo «ez gai» modura azalduko dira. Nolanahi ere, epaimahaiak bigarren zerrenda bat argitaratuko du lan poltsarako, betiere derrigorrezkotasunik ez duten postuei dagokienez; horietan euskarak meritu gisako puntuazioa emango du oinarrietan ezarritakoaren arabera.

Hautaketa prozesua amaituta, lan poltsa osatzen duten pertsonek ondoren lor dezaketen euskararen hizkuntza eskakizunaren egiaztapena aurkeztu ahalko dute, betiere derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten kontratuetan sartu ahal izateko; dena dela, hautaketa prozesuko euskara atalean lortutako puntuazioak ez dira aldatuko arrazoi hori tarteko.

15.7. Partzuergoaren lan poltsen kudeaketa gerentziak onartutako irizpideen arabera egingo da; irizpideotan zehaztuko da, besteak beste, deialdi desberdinen arteko zerrenden lehentasun ordena.

**16. Aurkaratze bideak eta gorabeherak**

16.1. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Zuzendaritza Batzordearen erabaki bidez onartutako oinarriak berraztertze errekurtso bidez aurkaratu ahalko dira Zuzendaritza Batzordearen aurrean hilabeteko epean edo zuzenean administrazioarekiko auzi ordena jurisdikzionalean bi hilabeteko epean; epeak Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasiko dira, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123., eta 124. artikuluak eta Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioa arautzen duen 29/1998 Legearen 46. artikuluak ezarritakoaren arabera.

16.2. Epaimahaiak, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, eskumena izango du sortutako zalantzak argitzeko eta hautaketa prozesua behar den moduan garatzeko beharrezkoak diren erabaki guztiak hartzeko.

16.3. Hautaketa prozesuaren ondoriozko nahiz epaimahaiaren jarduketaren ondoriozko egintza administratibo guztiak aurkaratu ahalko dira, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako epean eta forman.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

## II. OINARRI BEREZIAK

DISPATCHING-EKO LAGUNTZAILE TEKNIKOA-5 PLAZA

**ESP.: OP19/001-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

### 1. Izena

Dispatchingeko laguntzaile teknikoa. 3. Talde Profesionalari, Teknikari aditu koordinatzailea, 07 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

### 2. Plazak eta txandak

— Txanda librea: 4 plaza 1. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

— Minusbaliotasuna duten pertsonentzako txanda: Plaza bat 1. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

Minusbaliotasuna duten pertsonentzat gordetako plazak txanda librea handituko du hutsik geratuz gero.

Deitutako plazen lanaldiko txandak itxiak dira, eta errelebo araubidean ezarriko dira.

Plaza horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onetsitako Lan Eskaintza Publikoaren esparruan deitu dira. Deitu diren plazetako lau 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 manuan araututako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren baitan deitu dira.

### 3. Hautaketa sistema

Oposizio lehiaketa.

### 4. Betekizunak

Beharrezko titulazioa: Goi mailako teknikaria (Bigarren mailako Lanbide Heziketa):

a) Elektrizitatea eta elektronika edo

b) Fabrikazio mekanikoa, espezialitate hauetan: Eraikuntza metalikoak; mekanizatu bidezko produkziokoak edo

c) Ekoizpenerako mantentzea eta zerbitzuak, espezialitate hauetan: Fluxu instalakuntzen, instalakuntza termikoen eta mantenu instalakuntzen proiektuen garapena; ekipamendu industriala mantentzea; eraikuntzetako instalakuntzen muntatzea eta prozesua edo

d) Ibilgailu autopropultsatuen mantentzea automobilgintza espezialitatean edo

e) Ingurumen kimika espezialitateko kimikoa edo

f) Informatika.

### 5. Lanpostuaren funtzioak

*Eginkizuna*

Kontrol Zentraleko Postutik zerbitzu iraunkorreko hornidura eta saneamendu prozesua kontrolatzea, eta horretarako beharrezko eragiketak egitea sistemetan, bere esleipenen gorabeherak konponduz eta gainerakoak beste sailetara bideratuz. Hori guztia ezarritako prozedurekin eta hierarkia maila goragokoa duten nagusien jarraibideekin bat eginez, beren kargura dauden instalakuntzen funtzionamendua zuzena izan dadin eta eskuragarri dauden baliabideak optimizatu daitezen.

*Funtzio nagusiak*

1. Denbora errealean kontrol zentrotik monitorizatutako hornidura edo saneamendu sareko urrutiko instalakuntzak berrikustea eta kudeatzea, egiaztatuz parametro nagusien garapena eta horietan jardunez, sistemaren funtzionamendua zuzena eta orekatua izan dadin.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

2. Sarearen jokaera arautzen duten parametroetan kontrol eta eragiketa aginduak ezartzea, funtzionamendua etengabe hobetzen joateko.
3. Sistemako alarmak identifikatzea eta kudeatzea eta kontrol postutik konpontzea.
4. Gorabeherak erregistratzea eta kudeatzea, ezarritako prozedurekin bat eginez.
5. Kategoria profesionalarekin bat datozen kabineteko lanak egitea, datuak erabiltzearekin eta eraldatzearekin eta hala dagokionean datuak hedatzearekin zerikusia dutenak.
6. Lanpostuko langile berriei prestakuntza ematea.
7. Esleitzen zaizkion gainerako lanak, bere talde profesionalari dagozkionak.

**6. Oposizio fasea**

— A ataleko 1. ariketan idatziz erantzun ezberdinak izan ditzaketen galderak landuko dira. Galderak itxiak izango dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— B ataleko 1. ariketan izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren jakintza zehatzen gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz egindako galderei.

Epaimahaiak, ariketa egiteko egunaren edo egunen deialdiarekin batera zehaztuko du ariketa hori nolakoa izango den, erantzun ezberdineko galderak edo garatzeko ariketak izango diren hain zuzen ere.

— 2. ariketan kasu praktikoak ebatzi beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

— 3. ariketan azterketa psikoteknikoak egin beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak**

Egiaztatutako esperientzia baloratzeko 11.2.1. oinarri orokorrean ezarritako A eta B atalen azpiatal hauek oinarri hartuko dira:

— A1 eta B1: Dispatchingeko laguntzaile tekniko gisa duen esperientzia kontroleko postu zentraletan, hornidura edo saneamendu instalazioetan.

— A2 eta B2: Dispatchingeko laguntzaile tekniko gisa duen esperientzia kontroleko postu zentraletan, hornidura edo saneamendu instalazioetan, eta gainera, beste azpiegitura batzuetan.

— A3 eta B3: Dispatchingeko laguntzaile tekniko gisa duen esperientzia utilities-eko kontroleko postu zentraletan (energia, gasa, trenbideak, eta abar).

— A4 eta B4: Dispatchingeko laguntzaile tekniko gisa duen esperientzia bestelako ekoizpen prozesuen kontroleko postu zentraletan.

II. GAI ZERRENDA

**A) Ezagutza orokorren gai zerrenda**

1. gaia: Hornidura prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

2. gaia: Saneamenduaren prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

3. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

4. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

5. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

6. gaia: Generoaren arloko politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

7. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

8. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren zuzendaritza-organoak eta eskudantziak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

10. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

11. gaia: Kalitatearen kudeaketa sistemak: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatearen Kudeaketa Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

12. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

### B) Ezagutza berezien gai zerrenda

**1. atala.—*Plubiometria, hidrologia eta baliabide hidrikoak***

1. gaia: Euri urak.

Aldagai hidrologikoak: ezaugarriak eta irudikapena. Ekaitz hidrogramak aztertzea: kontzentrazio denbora, itzultzeko aldia. Metodo arrazionala.

2. gaia: Baliabide hidrikoak.

Gainazaleko eta lur azpiko urak biltzea. Urtegiak biltzea. Azaleko uren ezaugarriak. Ibaiak eta errekastoak biltzea: biltzeko obra motak. Lur azpiko urak: prospekzioak eta zundaketak. Urtegiak: ur emariak arautzea eta urtegi baten bermea.

**2. atala.—*Hidraulika***

3. gaia: Hodiak, xafla libreetan eta presioan.

Definizioa. Fluxu araubideak. Karga galerak eta garraiatzeko edukiera. Presiozko hodien ezaugarriak. Karga galerak: Printzipioak, formulak eta kalkuluak.

4. gaia: Fluxuen estatika eta dinamika.

Bernuilliren teorema: printzipioak, formulak eta kalkuluak. Guztizko energia lerroak eta piezametrikoak marruskadura duten sistema hidraulikoetan: karga galeraren interpretazioa.

**3. Atala.—*Instalazio hidraulikoak***

5. gaia: Gainezkabideak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Motak. Instalazioaren elementuak. Gainezkabidearen diseinua. Eragiketa metodoa.

6. gaia: Ponpaketak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Motak. Instalazioaren elementuak. Ponpaketa baten diseinua. Eragiketa metodoa horniduran eta saneamenduan.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

7. gaia: Ekaitz tangak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Motak. Instalazioaren elementuak. Tanga baten diseinua. Eragiketa metodoa.

8. gaia: Sifoiak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Motak. Instalazioaren elementuak. Gainezkabidearen diseinua. Eragiketa metodoa.

9. gaia: Urtegiak.

Kontzeptua. Segurtasun kontzeptuak. Urtegi motak. Presa txikiak. Gainezkabideak.

10. gaia: Zentral hidroelektrikoak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Motak. Instalazioaren elementuak.

11. gaia: Erregulatze eta banaketa biltegiak.

Biltegien helburua. Kokalekua. Motak eta sailkapena. Erregulatze, kontrol eta segurtasuneko gailuak eta ekipamenduak.

12. gaia: Edateko Uren Tratamendutegiak (EUT).

EUT baten helburua. EUT baten sarreran eta irteeran kalitatea kontrolatzeko parametro nagusiak. Gizakiek kontsumitzeko uraren ezaugarri nagusiak.

**4. atala.—*Sistema hidraulikoen kontrola eta maniobrak***

13. gaia: Saneamendu sistema baten kontrol funtzioak.

Hondakin Uren Araztegi bat (HUA) kontrolatzeko oinarrizko funtzioak, biak ere txikiak. Kolektore sare baten funtzionamendua. Funtzionamendu estrategiak.

14. gaia: Balbulak eta mekanismoak.

Mozketa balbulak. Ur emaria erregulatzeko balbulak. Presioa murrizteko balbulak: motak. Gainpresiozko balbulak. Gainabiadurazko balbulak. Mailaketa balbulak. Flotagailu balbulak.

15. gaia: Instrumentazioa.

Mailaketa neurriak: motak, ezaugarriak, abantailak eta desabantailak, erabilpena. Elementu mekanikoen kokapen kontrola. Manometroak. Presostatoak. Eragingailuak.

16. gaia: Emariaren neurketa.

Kontadoreak eta emari neurgailuak xafla librean eta presioan. Neurri zuzena eta zeharkakoa. Definizioa, ezaugarriak eta erabilpena. Bakoitzaren abantailak eta desabantailak.

**5. atala.—*Kontrol zentroak eta sistemak eta komunikazioak***

17. gaia: Lanak kudeatzea kontroleko zentro batean.

Kontrola, tokikoa eta urrutikoa. Langile baten zereginak. Alarmak ezagutzea. Matxurak diagnostikatzea. Ustiapen eta mantentze langileak kudeatzea. Gorabeherak kudeatzea eta ustiapen protokoloak.

18. gaia: Kontrol zentroko komunikazioak.

Kontrol Zentraleko Postuaren (KZP) eta estazio periferikoen arteko komunikazio sareak: motak, komunikazio protokoloak, ezaugarriak. Matxurak kudeatzea.

19. gaia: Kontrol sistemak eta datuak denbora errealean eskuratzeko sistemak (Scada).

Xedea eta zereginak. Elementuak. Wonderware plataforma: arkitektura, ezaugarriak, alarmak eta ekimenak kudeatzea, datuak kudeatzea, aldagaiak kontrolatzea, bistaratzea. Kontsultak eta informeak. Videowall.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**6. atala.—*Automatismo industrialak***

20. gaia: Automata programagarri industrialak.

Oinarrizko kontzeptuak. Programazioa. Osaera. Sareen konfigurazioa. Seinale motak.

21. gaia: Indar, kontrol eta argiteria koadroak.

Erabilpena eta babesa. Elementuak eta osagaiak. Eginkizunak. Berrarmatzea. Motorrak kontrolatzeko koadroa (CCM) erabiltzea.

**7. atala.—*Informatika***

22. gaia: Ofimatika.

Word: Kontzeptu orokorrak, edizioa, formatua, testu blokeekin lana, txantiloiak, agirien fusioa, etab. Excel: Kontzeptu orokorrak, gelaxkak, barrutiak, funtzioak, taulak, grafikoak. Access: Kontzeptu orokorrak, edizioa, diseinua eta taulak sortzea, kontsulta indexazioa antolatzea, galdetegiak eta txostenak. Power point: Kontzeptu orokorrak, edizioa, formatua, testu blokeekin lana, txantiloiak, etab.

**8. atala.—*Arriskuen prebentzioa***

23. gaia: Datuak ikusteko pantailak.

Ebaluazioa eta datuak ikusteko pantailak dituzten ekipamenduei lotutako arriskuak prebenitzea.

24. gaia: Konfinatutako espazioei buruzko araudia.

Definizioak. Kategoriak. EC-en dauden arriskuak. Konfinatutako espazioetan dauden lanetarako sarrera baimena. Lan segururako jarraibideak. Babes ekipamenduak.

**9. atala.—*Bestelako ezagutzak***

25. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu eta arazketa zerbitzuaren ordenantza arautzailea.

II., III. eta VI. kapituluak. Saneamendu autonomoa erabiltzea.

26. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren hornidura zerbitzuaren ordenantza arautzailea.

II. eta III. kapituluak.

27. gaia: Jabari publiko hidraulikoaren araubidea.

Euria dagoenean saneamendu sistemek gainezka egitea. Gainezka egiten duten lekuen inbentarioa. Gainezka egiteak kontrolatzeko neurriak. Jariatze urak kudeatzeko instalakuntzak diseinatzeko arau teknikoak.

28. gaia: Bainatzeko uren zuzentaraua.

Helburua eta aplikazio eremua. Bainatzeko uraren kalitatea egiaztatzea. Bainatzeko urak sailkatzea. Bainatzeko uren profilak. Jendeari informazioa ematea kudeatzea.

29. gaia: Otsailaren 7ko 140/2003 Errege Dekretua, gizakiek kontsumitzeko uraren kalitateari buruzkoa.

Erantzukizunak. Gizakiek kontsumitzeko uraren kalitateari buruzko irizpideak. Giza kontsumorako uraren kalitatearen gaineko kontrola.

30. gaia: Urei buruzko legea.

Jabari publiko hidraulikoa. Ur emakidak. Erabiltzaileen erkidegoak. Plangintza hidrologikoa. Interes orokorreko obra hidraulikoak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

HORNIDUREN IKUSKATZAILEA-7 PLAZA

**ESP.: OP19/002-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

### 1. Izena

Horniduren ikuskatzailea. 3. Talde Profesionalari, Teknikari espezialista, 08 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

### 2. Plazak eta txandak

— Txanda librea: 7 plaza 1. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).

Deitutako zazpi plazak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako Lan Eskaintza Publikoaren testuinguruan deitu dira, 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean arautụtako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan.

### 3. Hautaketa sistema

Oposizio-lehiaketa.

### 4. Betekizunak

— Beharrezko titulazioa: Honako titulazioren bat izatea:

a) Goi mailako teknikaria bigarren mailako Lanbide Heziketako adar hauetako-ren batean: Eraikuntza eta Obra Zibila; Elektrizitatea eta Elektronika; Fabrikazio Mekanikoa; Berez Dabiltzan Ibilgailuen Mantentzea; Produkzioko Mantentze eta Zerbitzuak; Kimika.

b) Eskola Graduatua (OHO), Oinarrizko Batxilergoa, lehenengo mailako Lanbide Heziketa (edo baliokidea) eta gainera:

b.1) Iturgintza instalazioetako txartel profesionala (barneko ur instalakuntzak) edo

b.2) 5 urteko esperientzia profesionala iturgin lanetan.

— Beste betekizun batzuk: B gidatzeko baimena.

### 5. Lanpostuaren funtzioak

*Eginkizuna*

Kontadore irakurgailuak ikusiz erabiltzaileek ur kontsumoari buruz emandako datuak aztertzea eta egiaztatzea, beharrezkoa denean Abonatuak Kudeatzeko datu baseko fitxategiak eguneratuz eta erreklamazioak ebaztea eta ur hargune faltsuak aztertzea eta detektatzea, lan hierarkian goragoko mailan dagoen nagusiaren zuzentarauei jarraiki. Hori guztia bermatzeko hornidura ordainagiriak zuzen fakturatzen direla, eta gainera, eskumenak dituzten sailei detektatutako ur hargune faltsuen berri ematea.

*Funtzio nagusiak*

1. Kontadore irakurgailuek emandako datuak aztertzea, sortutako gorabeherak konponduz, eta hori guztia ur horniduraren fakturazioa zuzena dela bermatzeko.
2. Bereziki zailak diren kontadoreak irakurtzea ( leku zailetan kokatuta daudenak) ur hornidurako ordainagiriak fakturatzeko beharrezkoak diren datuak eskuratzeko.
3. Erabiltzaileek aurkeztutako erreklamazioak lantzea, horien jatorria aztertuz. Hori guztia emandako zerbitzuaren kalitatea eta epeak ahalik eta onenak izateko.
4. Erabiltzaileen kontsumoko datu fitxategiak eguneratzea horiek aldatuz, sail eskatzaileei fidagarria den informazioa emateko.
5. Ur hargune faltsuak detektatzea horien berri dagokion sailari emateko hark beharrezko izapidetzeak egin ditzan.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

6. Bere lanbide taldeari dagozkion eta agintzen zaizkion bestelakoak.

**6. Oposizio fasea**

— A ataleko 1. ariketan idatziz erantzun ezberdinak izan ditzaketen galderak landuko dira. Galderak itxiak izango dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— B ataleko 1. ariketan izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren jakintza zehatzen gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz egindako galderei.

Epaimahaiak, ariketa egiteko egunaren edo egunen deialdiarekin batera zehaztuko du ariketa hori nolakoa izango den, erantzun ezberdineko galderak edo garatzeko ariketak izango diren hain zuzen ere.

— 2. ariketan jarduera praktikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— 3. ariketan proba psikoteknikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

**7. Esperientzia baloratzeko irizpide espezifikoak**

Egiaztatutako esperientzia baloratzeko 11.2.1. oinarri orokorrean ezarritako A eta B atalen azpiatal hauek oinarri hartuko dira:

— A1 eta B1: Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoko bezeroekin horniduren ikuskatzaile gisa izandako esperientzia.

— A2 eta B2: Iturgin gisa izandako esperientzia hornidurako eta/edo ur saneamenduko zerbitzu publikoko bezeroekin.

— A3 eta B3: Esperientzia iturgin gisa ur hornidura eta/edo saneamenduko instalakuntza partikularretan.

— A4 eta B4: Aurreko ataletan jasota ez dauden bestelako egoeretan izandako iturgin esperientzia.

**8. Prestakuntza ikastaroak baloratzeko irizpide espezifikoak**

Lan-txartelak (11.2.3.E oinarri orokorra).

Iturgintza instalatzaile profesionalaren lan-txartela (barneko ur instalazioak) edukitzea puntu batekin baloratuko da.

Ez da baloratuko titulazio baldintza betetzeko aurkeztutako kasuetan.

II. GAI ZERRENDA

**A) Ezagutza orokorren gai zerrenda**

1. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

2. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

3. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

4. gaia: Generoaren arloko politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

5. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

6. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren zuzendaritza-organoak eta eskudantziak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

7. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

8. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

9. gaia: Kalitatearen Kudeaketa Sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatea kudeatzeko sistemaren mantentzea. Ziurtagiria.

10. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

### B) Ezagutza berezien gai zerrenda

**1. atala.—*Oinarrizko hidraulika***

1. gaia: Hustubideak eta harguneak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Eragiketa metodoa. Ixteko gailuak: balbula motak eta konportak.

2. gaia: Biltegiak eta harguneak.

Definizioa. Eginkizunak. Kokalekua. Oinarrizko elementuak. Erregulatze gaitasuna. Biltegi motak. Obra bereziak. Ustiapena eta kontserbazioa.

**2. atala.—*Ur instalazioak eta iturgintza elementuak***

3. gaia: Barne banaketako instalakuntzak.

Kontzeptua. Gorako hodiak. Desbideratzeak. Hodiak eta hodien babesa. Hodien eta ur harguneen egoera.

4. gaia: Eraikinetatik euri urak ebakuatzeko sareak.

Eraikinetatik euri urak ebakuatzeko sareen kontzeptua. Eraikinetako euri urak ebakuatzeko sareen sistemak, elementuak eta ezaugarriak. Egikaritzea eta materialak.

5. gaia: Konpontzea, desmuntatzea eta elementuak aldatzea.

Tangak, iturriak, giltzak eta ponpak konpontzea. Komuneko sifoiak desmuntatzea. Iturriko asentu balbula aldatzea. Iturriko asentu balbula esmerilatzea.

6. gaia: Hodiak I.

Hodien materialak eta ezaugarri nagusiak. Estaldurak, soldatzea, eta abar.

7. gaia: Hodiak II.

Altzairu galvanizatuzko hodia. Kobrezko hodia. PVCzko hodia. Ebakuazioa. Hodi malguak. Burdinazko hodiak. Polietilenozko hodiak eta loturak. Hodiak jartzea. Hodiak babestea.

**3. atala.—*Tasak likidatzea eta diru-bilketa kudeatzea***

8. gaia: Ur hornidураren zerbitzuaren ordenantza arautzailea eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu eta arazketa zerbitzuaren ordenantza arautzailea.

9. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ur hornidura, saneamendu eta arazketa zerbitzuen erabiltzaileei emandako zerbitzu tasen ordenantza arautzailea. Zerga egitatea. Diru-bilketarako jarduketak eta prozedurak.

10. gaia: BBUPek beste administrazio batzuen kontura kudeatutako tasak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**4. atala.—*Iruzurra kudeatzea***

11. gaia: Aitortu gabeko kontsumoen iruzurrak detektatzea eta identifikatzea. Lan metodologiak eta kudeaketari laguntzeko tresnak. Landa eta hiri guneak kudeatzea. Informazio iturrietara sartzea eta datu baseak gurutzatzea. Katastroko erreferentziak.

12. gaia: Instalakuntza eta/edo kontadorea manipulatuta egindako iruzurrak detektatzea eta identifikatzea.

**5. atala.—*Instalazio partikularrak, komunitatekoak eta hornidura eta/edo saneamenduko zerbitzu publikoarenak***

13. gaia: Instalazio publikoak eta pribatuak mugatzea.

14. gaia: Eraikuntzen kode teknikoa.

Xedea. Oinarrizko betekizunak uraren hornidurari eta ebakuazioari dagokionez.

**6. atala.—*Kontagailuak eta teleirakurketa***

15. gaia: Kontagailuak. Kontagailu motak. Instalakuntzen ezaugarriak eta eskakizunak. Dimentsioak eta ur emariak. Gaitasun metrologikoa.

16. gaia: Kontagailuen irrati bidezko irakurketa. Irrati bidezko irakurketako sistemak eta kontagailuak. Irrati frekuentziako moduluak berriz ere konfiguratzea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

ITURGIN OFIZIALA-3 PLAZA

**ESP.: OP19/003-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Iturgin ofiziala. 4. Profesionalari Talde, Teknikaria, 9A Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea: 3 plaza 1. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).

Deitutako hiru plazak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako Lan Eskaintza Publikoaren testuinguruan deitu dira, 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean araututako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio-lehiaketa.

**4. Betekizunak**

— Beharrezko titulazioa: Honako titulazioren bat izatea:

a) Lehenengo mailako lanbide heziketa, fabrikazio mekanikoko teknikaria edo

b) Lehenengo mailako lanbide heziketa, mantentze teknikaria eta ekoizpen zerbitzuak edo

c) Eskolako Graduatua (OHO), Oinarrizko Batxilergoa, lehenengo mailako lanbide heziketa edo baliokidea, eta gainera, honakoetako bat:

c1) Iturgintza instalatzailearen txartel profesionala (barneko ur instalakuntzak) edo

c2) 5 urteko esperientzia profesionala iturgin lanetan.

— Beste baldintza batzuk: B gidatzeko baimena.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

*Eginkizuna*

Bezeroei eta berankorrei ur hornidura berrikustea, informazioa ematea, diru bilketa gauzatzea, mozketak egitea edo zerbitzua berriro ere jartzea eta sortutako gorabeherak aztertzea eta konpontzea.

Barneko instalakuntzak berrikustea, behin-behinekoak edo behin betikoak, hornidura baliozkotzeko.

Behin-behineko instalakuntzen kontagailuak instalatzea eta desinstalatzea ohiko moduan eta behin betikoena, Bezeroen Harremanetako Sailaren beharren arabera.

*Funtzio nagusiak*

1. Bezero berankorrei beren etxeetan edo hornidura puntuetan Partzuergoarekin dituzten zorren berri ematea, eta Diru-bilketa Buruzagitzaren jarraibideekin bat eginez zorra kentzeko epeak eta zenbatekoak proposatzea.

2. Ur hornidura moztea bezeroek ordaindu ez dutelako edo baja egoeran daudelako, eta ur zerbitzua ematea bezeroak altan daudenean edo Diru-bilketa Buruzagitzak berrezartzeko agindua ematen duenean.

3. Bezeroei eskuragarri dauden ordainketa metodoen berri ematea.

4. Eraikuntza prozesuan zehar «eraikitzen dagoen obra» eta «kontagailua duen ur hargunea» jardueren bidez identifikatutako erabiltzaileak berrikustea eta horien jarraipena egitea, ur hargunea egikaritzea, hornidurako behin-behineko instalakuntzak egitea, behin betiko barneko instalakuntzak egikaritzea eta behin-behineko hornidura bukatzea

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

barne. Hori guztia bermatzeko instalakuntza horien egikaritzeak bat egiten duela aplikatu beharreko araubidearekin eta bermatzeko baita ere hornidurak kontrolatuta daudela eta zuzentasunez erabiltzen direla.

5. Landa gunean proiektugileei, eraikitzaileei, instalatzaileei eta erabiltzaileei Partzuergoak onartzen dituen kontadore mota eta modeloen berri ematea instalakuntza mota bakoitzarentzat, arreta berezia eskainiz irrati bidezko irakurketa duten guneetan.

6. Aurretik deskribatutako horniduren kontagailuak instalatzea eta desinstalatzea eta Arloko Arduradunak hala agindutako inguruabarretan, behin betiko instalakuntza duten kontagailuak direnean.

7. Barneko instalakuntzetan zuzenketak eta egokitzapenak egitea (pasabide giltzak, balbulak, hodiak, eta abar), bereziki kalibre ertainen eta handien erabiltzaileei, partzuergoak onartzen dituen kontagailuak horniduraren egoera zehatzera egokitzeko. Irrati bidezko irakurketaren beharrei arreta berezia eskaintzea.

8. Saileko kontratek egindako lanen kalitatea berrikusteko zereginak gauzatzea.

9. Noizbehinka ikuskapenak egitea, kontagailuak egiaztatzea, irakurketa eta neurriak apuntatzea.

10. Esleitzen zaizkion gainerako lanak, bere talde profesionalari dagozkionak.

### 6. Oposizio fasea

— A ataleko 1. ariketan erantzun ezberdinak izan ditzakeen galderak erantzungo dira idatziz. Galderak itxiak izango dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— B ataleko 1. ariketan izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren jakintza zehatzen gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz egindako galderei.

Epaimahaiak, ariketa egiteko egunaren edo egunen deialdiarekin batera zehaztuko du ariketa hori nolakoa izango den, erantzun anitzeko galderak edo garatzeko ariketak izango diren hain zuzen ere.

— 2. ariketan jarduera praktikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— 3. ariketan proba psikoteknikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

### 7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak

Egiaztatutako esperientzia baloratzeko 11.2.1. oinarri orokorrean ezarritako A eta B atalen azpiatal hauek oinarri hartuko dira:

— A1 eta B1: Iturgin gisa izandako esperientzia hornidurako eta/edo ur saneamenduko zerbitzu publikoko bezeroekin.

— A2 eta B2: Ur horniduraren eta saneamenduaren zerbitzu publikoko bezeroekin horniduren ikuskatzaile gisa izandako esperientzia.

— A3 eta B3: Esperientzia iturgin gisa ur hornidura eta/edo saneamenduko instalakuntza partikularretan.

— A4 eta B4: Aurreko ataletan jasota ez dauden bestelako egoeretan izandako iturgin esperientzia.

### 8. Merezimenduak baloratzeko irizpide bereziak

11.2.3.E) Oinarri Orokorrarekin bat eginez honako txartel profesionala izatea baloratuko da:

— Iturgintza instalatzailearen txartel profesionala (barneko ur instalakuntzak): Puntu 1.

Ez da baloratuko titulazio baldintza betetzeko aurkeztutako kasuetan.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

II. IKASGAIEN ZERRENDA

**A) Ezagutza orokorren gai zerrenda**

1. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

2. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren organo nagusiak eta aginpideak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

3. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

4. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

5. gaia: Generoaren arloko politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

6. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

7. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

**B) Ezagutza berezien gai zerrenda**

**1. atala.—*Oinarrizko hidraulika***

1. gaia: Hustubideak eta harguneak.

Kontzeptua. Eginkizunak. Eragiketa metodoa. Ixteko gailuak: balbula motak eta konportak.

2. gaia: Biltegiak eta harguneak.

Definizioa. Eginkizunak. Kokalekua. Oinarrizko elementuak. Erregulatze gaitasuna. Biltegi motak. Obra bereziak. Ustiapena eta kontserbazioa.

**2. atala.—*Ur instalazioak***

3. gaia: Barne banaketako instalakuntzak.

Kontzeptua. Gorako hodiak. Desbideratzeak. Hodiak eta hodien babesa. Hodien eta ur harguneen egoera.

4. gaia: Eraikinetatik euri urak ebakuatzeko sareak.

Eraikinetatik euri urak ebakuatzeko sareen kontzeptua. Eraikinetako euri urak ebakuatzeko sareen sistemak, elementuak eta ezaugarriak. Egikaritzea eta materialak.

**3. atala.—*Iturgintza elementuak***

5. gaia: Konpontzea, desmuntatzea eta elementuak aldatzea.

Tangak, iturriak, giltzak eta ponpak konpontzea. Komuneko sifoiak desmuntatzea. Iturriko asentu balbula aldatzea. Iturriko asentu balbula esmerilatzea.

6. gaia: Hodiak I.

Hodien materialak eta ezaugarri nagusiak. Estaldurak, soldatzea, eta abar.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

7. gaia: Hodiak II.

Altzairu galvanizatuzko hodia. Kobrezko hodia. PVCzko hodia. Ebakuazioa. Hodi malguak. Burdinazko hodiak. Polietilenozko hodiak eta loturak. Hodiak jartzea. Hodiak babestea.

**4. atala.—*Tasak likidatzea eta diru-bilketa kudeatzea***

8. gaia: Ur horniduraren zerbitzuaren ordenantza arautzailea eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren saneamendu eta arazketa zerbitzuaren ordenantza arautzailea.

9. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ur hornidura, saneamendu eta arazketa zerbitzuen erabiltzaileei zerbitzua emateagatiko tasak arautzen dituen ordenantza: Zerga egitatea. Diru-bilketarako jarduketak eta prozedurak. Zergei lotutako ez betetzeak.

**5. atala.—*Instalazio partikularrak, komunitatekoak eta hornidura eta/edo saneamenduko zerbitzu publikoarenak***

10. gaia: Instalazio publikoak eta pribatuak mugatzea.

11. gaia: Eraikuntzen kode teknikoa.

**6. atala.—*Kontagailuak eta teleirakurketa***

12. gaia: Kontagailuak: Kontagailu motak. Instalakuntzen ezaugarriak eta eskakizunak. Dimentsioak eta ur emariak. Gaitasun metrologikoa.

13. gaia: Kontagailuak irrati bidez irakurtzea: Irrati bidezko irakurketako sistemak eta kontagailuak. Irrati frekuentziako moduluak berriz ere konfiguratzea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

LABORATEGIKO ANALISTA-5 PLAZA

**ESP.: OP19/004-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Laborategiko analista. 3. Talde profesionalari, Teknikari aditu koordinatzailea, 07 Eskalari dagozkion lan kontratuko langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea: 4 plaza 1. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

— Minusbaliotasuna duten pertsonentzako txanda: Plaza bat 1. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

Minusbaliotasuna duten pertsonei gordetako plazak txanda librea handituko du, hutsik geratuz gero.

Plaza horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onetsitako Lan Eskaintza Publikoaren esparruan deitu dira. Deitu diren plazetako hiru 2018. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 manuan araututako aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuaren baitan deitu dira.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio-lehiaketa.

**4. Betekizunak**

Beharrezko titulazioa: Bigarren mailako lanbide heziketa, goi mailako teknikaria arlo hauetan:

a) Kimika edo

b) Diagnostiko klinikoko laborategiko espezialitateetako osasuna edo ingurumen osasunekoa.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

1. Esleitutako espezializazio eremuko entseguak eta zehaztapen analitikoak egitea programatutako lan kargaren ardura hartuz, eta hori guztia laginketen ezaugarritze zehatza bermatzeko.
2. Egindako entseguetan sortutako datuak kudeatzea eta egiaztatzea kalitateari buruzko eskuliburuan ezarritako prozedurekin bat eginez, eta ziurtatzea ez dagoela aldaketa handirik neurrien historikoarekiko.
3. Teknikariekin lanean aritzea entsegu metodoak garatzen, ezartzen eta eguneratzen ezarritako prozedurekin bat eginez, bermatzeko entseguak modu homogeneoan egiten direla eta indarrean dauden araubideekin bat eginez.
4. Laborategiko kalitate esparruan ezartzen diren prestakuntza eta kualifikazio programetan parte hartzea.
5. Laborategiko nagusiarekin eta teknikariekin lankidetzan aritzea beren zereginak egikaritzen eta agindutako zereginetan.
6. Langile berriei prestakuntza ematea.
7. Esleitzen zaizkion gainerako lanak, bere talde profesionalari dagozkionak.

**6. Oposizio fasea**

— A ataleko 1. ariketan erantzun ezberdinak izan ditzaketen galderak erantzungo dira idatziz. Galderak itxiak izango dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

— B ataleko 1. ariketan izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren jakintza zehatzen gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz egindako galderei.

Epaimahaiak, ariketa egiteko egunaren edo egunen deialdiarekin batera zehaztuko du ariketa hori nolakoa izango den, erantzun ezberdineko galderak edo garatzeko ariketak izango diren hain zuzen ere.

— 2. ariketan jarduera praktikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

— 3. ariketan proba psikoteknikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

## 7. Esperientzia baloratzeko irizpide espezifikoak

Egiaztatutako esperientzia baloratzeko 11.2.1. oinarri orokorrean ezarritako A eta B atalen azpiatal hauek oinarri hartuko dira:

— A1 eta B1: Egiaztatutako entsegu laborategian ur edangarriak edo hondakin urak aztertzen diren laborategian analista esperientzia izatea.

— A2 eta B2: Laborategi analista gisa esperientzia izatea elikagaien edo ingurumen sektorean, egiaztatutako entsegu laborategian.

— A3 eta B3: Laborategiko analista gisa esperientzia izatea uraren sektorean, elikadura sektorean edo ingurumen sektorean egiaztatu gabeko laborategietan edo laborategiko analista esperientzia izatea sektore industrialean edo klinikoan.

— A4 eta B4: Laborategiko analista esperientzia izatea beste sektore batzuetan, jarduera anitzekoetan, aurreko atalen barne esperientzia kokatu ezin daitekeenetan.

Kimika irakasle gisa egiaztatutako esperientziak sortutako azpiatalean duen balorazio berdina izango du. Laborategiko unibertsitate tituludun esperientzia baloratzeko sortutako azpiatalaren behean dagoen azpiatala kontuan hartuko da. Laborategiko laguntzaile esperientzia sortutako mailaren bi maila azpitik dagoen azpiatalean baloratuko da (A1-ean bada A3-an baloratuko da, A2-an bada A4-an baloratuko da, eta abar). Ez da esperientzia baloratuko azkena baino baxuagoa den azpiatal bat aplikatu behar baldin bada.

## II. GAI ZERRENDA

### A) Ezagutza orokorren gai zerrenda

1. gaia: Hornidura prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

2. gaia: Saneamenduaren prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

3. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

4. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

5. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

6. gaia: Genero politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

7. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

8. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren organo nagusiak eta aginpideak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

9. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

10. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

11. gaia: Kalitatearen Kudeaketa Sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatearen Kudeaketa Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

12. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

### B) Ezagutza espezifikoen gai zerrenda

**1. atala.—*Kimikaren oinarriak***

1. gaia: Materiaren izaera. Atomoa: partikulak eta azpipartikulak. Taula periodikoa. Formulazio organikoa eta inorganikoa. Pisu atomikoa eta zenbaki atomikoa. Laborategian ohikoenak diren substantzia kimikoak.

2. gaia: Ekuazio kimikoak eta oreka kimikoa. Erreakzio abiadura. Oreka konstanteak. Le Chatelier-en printzipioa. Kalkulu estekiometrikoak. Mol kontzeptua, pisu atomikoa eta pisu molekularra.

3. gaia: Disoziazio ionikoaren teoria. Uraren disoziazioa. Produktu ionikoa. Azidoa eta basea kontzeptua. pH. Soluzio indargabetzaileak. Azido basearen erreakzioak.

4. gaia: Oxidazioa-erredukzioa. Baliokide kimikoa eta pisu baliokidea. Redox ekuazioen egokitzapena. Aplikazio handiena duten redox bolumetriak. Redox bolumetriei lotutako adierazleak.

5. gaia: Lehenengo mailako espezie kimikoak eta horien erabilera. Erreakzioak eta bolumetriak azido-basea. Atzeratze bolumetriak, hauspeatze bolumetriak eta konplexuen eraketa bolumetriak. Koloreztatutako adierazleak.

**2. atala.—*Laborategiko lanak***

6. gaia: Laborategiko lanak I. Bolumenen pisatzeak eta neurketak egiteko modua. Disoluzioak prestatzea. Disoluzio motak eta propietateak. Kontzentrazio unitateak. Kalkuluak.

7. gaia: Laborategiko lanak II. Laginak egokitzeko eta prestatzeko prozesuak: babestea, egonkortzea, destilazioa. Sikatzea, filtratzea, kaltzinatzea.

8. gaia: Materiala garbitzea eta prestatzea. Ezberdintasunak, egin beharreko entseguen arabera. Kasu bakoitzean erabili beharreko produktuak edo prozesuak. Materiala garbitzea erabilera analitiko fisiko kimiko eta mikrobiologikoentzat.

**3. atala.—*Laborategiko tresnak***

9. gaia: Pisatzeko ekipamenduak. Motak. Erabiltzeko moduak. Mantentze, kalibrazio eta egiaztatze lanak.

10. gaia: Laborategiko material bolumetrikoa. Motak eta aplikazioak. Erabiltzeko moduak. Mantentze, kalibrazio eta egiaztatze lanak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**4. atala.—*Analisi teknikak***

11. gaia: Turbidimetria, espektrofotometria ultramore-ikusgarria eta infragorrien espektroskopia. Oinarriak eta erabiltzeko modua. Aplikazioak eta kalibrazio eta egiaztatze modua.

12. gaia: Kromatografo ionikoak eta segmentatutako fluxu aztertzaileak. Oinarriak eta erabiltzeko modua. Aplikazioak eta kalibrazio eta egiaztatze modua.

13. gaia: Elektrokimika oinarriak. Potentziometria, konduktimetria, elektrodo motak, erreferentziazko elektrodoak eta hautaketa elektrodoak. Elektrodoak mantentzea eta kontserbatzea.

**5. atala.—*Mikrobiologia***

14. gaia: Mikrobiologia laborategia desinfektatzea eta esterilizatzea. Eragile fisiko eta kimikoekin desinfektatzeko eta esterilizatzeko teknikak.

15. gaia: Lantze bitartekoak. Sortzea. Lantze bitartekoen kalitate kontrola. Esterilitate eta hautakortasun kontrolak.

16. gaia: Uraren mikrobiologia eta teknika mikrobiologiko nagusiak ur naturalak eta kontsumorako urak aztertzeko: Mintz bidezko filtrazioa, zenbaki probableena, PCR eta proba biokimikoak egitea.

17. gaia: Mikrobiologian diluzioak egiteko modua eta azken emaitzak kalkulatzeko modua.

**6. atala.—*Kalitatea laborategian***

18. gaia: UNE-EN-ISO 17025 araua. Lanerako normalizatutako prozedurak. Dokumentazioa eta erregistroak. Langileen kualifikazioa. Erreferentziazko materialak eta patroi kimikoak, barneko eta kanpoko kalitate kontrolak.

19. gaia: Segurtasuna eta higiene berezia laborategi kimiko batentzat eta laborategi mikrobiologiko batentzat. Arau orokorrak. Istripuak prebenitzea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

LAGUNTZAILE TEKNIKOA (INFORMATIKA)-2 PLAZA

**ESP.: OP19/005-OINARRI ESPEZIFIKOAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Laguntzaile Teknikoa (Informatika). 3. Talde profesionalari, Teknikari aditu koordinatzailea, 07 Eskalari dagozkion lan kontratuko langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea:

- Plaza bat 1. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).
- Plaza bat 1. hizkuntza eskakizunarekin (ez da derrigorrezkoa).

Plazak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onetsitako Enplegu Publikoko Eskaintzaren barne daude.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio lehiaketa.

**4. Betekizunak**

Beharrezko titulazioa: Goi batxilergoa, bigarren graduko lanbide heziketa edo baliokidea.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

*Eginkizuna*

Aplikazio informatikoak garatzea eta programatzea, eta horretarako programazio lengoaia erabiltzea eta sistemen analisten zuzentarauak jarraitzea. Datu baseak, segurtasun kopiak, programatutako zereginak eta abar kudeatzeko aplikazioak garatzea. Erabiltzaileei laguntza ematea lanpostuarekin lotura duten kontu guztietan eta garatutako aplikazioen funtzionalitatea. Sare eta sistemen administrazioko langileei laguntza ematea.

*Funtzio nagusiak*

1. Aplikazio informatiko berrien programazioa eta instalakuntza egitea.
2. Gaur egungo aplikazioak migratzea eta mantentzea.
3. Erabiltzaileak, biltegiratze espazioak eta baimenak administratzean laguntza ematea.
4. Gorabeherak, alarmak edo aplikazioetan sortutakoak berrikustea eta aztertzea.
5. Sistemek egikaritutako zerbitzuak berrikustean laguntza ematea.
6. Datu baseen kudeatzaileetan aplikazioak ezartzea eta administratzea.
7. Profilak definitzean laguntza ematea eta datu baseen erabiltzaileak administratzea.
8. Mantentze script-ak sortzen eta automatizatzen laguntza ematea, baita datu baseen eta aplikazioen segurtasun kopiak egiterakoan ere.
9. Aplikazioak parametrizatzea.
10. Gorabeherak konpontzen laguntza ematea eta lanpostuko baliabideak optimizatzea.
11. Esleitzen zaizkion gainerako lanak, bere talde profesionalari dagozkionak.

**6. Oposizio fasea**

— A ataleko 1. ariketan erantzun ezberdinak izan ditzaketen galderak erantzungo dira idatziz. Galderak itxiak izango dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

— B ataleko 1. ariketan izangaiek idatziz erantzungo diete epaimahaiak deialdiaren jakintza zehatzen gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz egindako galderei.

Epaimahaiak, ariketa egiteko egunaren edo egunen deialdiarekin batera zehaztuko du ariketa hori nolakoa izango den, erantzun ezberdineko galderak edo garatzeko ariketak izango diren hain zuzen ere.

— 2. ariketan kasu praktikoak ebatzi beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

— 3. ariketan proba psikoteknikoak egingo dira, oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat eginez.

**7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak**

Egiaztatutako esperientzia baloratzeko 11.2.1. oinarri orokorrean ezarritako A eta B atalen azpiatal hauek oinarri hartuko dira:

— A1 eta B1: Garapen Naturalen-Adabasen teknikari laguntzaile gisa esperientzia izatea hornidura eta saneamendu eremuan bezeroak kudeatzeari dagokionez. Pantaila sorgailua barne, Entire Screen Builder.

— A2 eta B2: Garapen Naturalen-Adabasen teknikari laguntzaile gisa esperientzia izatea hornidura eta saneamendu eremuan bezeroak kudeatzeari dagokionez.

— A3 eta B3: Garapen Naturalen-Adabasen teknikari laguntzaile gisa esperientzia izatea energia, gas, komunikazio eta abarren eremuan bezeroak kudeatzeari dagokionez.

— A4 eta B4: Garapen Naturalen-Adabasen teknikari laguntzaile gisa esperientzia izatea bezeroak kudeatzea ez diren eremuetan. Kontabilitatea, giza baliabideak, eta abar.

II. GAI ZERRENDA

**A) Ezagutza orokorren gai zerrenda**

1. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

2. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

3. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

4. gaia: Genero politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

5. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

6. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren zuzendaritza-organoak eta eskudantziak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

7. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

8. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiria.

9. gaia: Kalitatearen Kudeaketa Sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatearen Kudeaketa Sistema mantentzea. Ziurtagiria.

10. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

B) Ezagutza berezien gai zerrenda

**1. atala.—*Ordenagailuen arkitektura eta Unix sistema operatiboa***

1. gaia: Ordenagailuen arkitektura: Prozesuko unitate zentrala. Kontrol unitatea, aritmetiko-logikoa: Egitura. Memoria zentrala: definizioa eta funtzio nagusiak.

2. gaia: Ordenagailuen arkitektura: Sistemaren periferikoak. Datuen fluxua eta kontrola. Sartzeko moduak.

3. gaia: Ordenagailuen arkitektura: Softwarea: sistema operatiboa: Definizioa eta funtzio nagusiak: Garapen historikoa. Programazio lengoaiak: definizioa. Motak eta programazio teknologiak.

4. gaia: Unix sistema operatiboa: garapen historikoa. Ezaugarriak. Osagaiak: Kernel. Shell.

5. gaia: Unix sistema operatiboa: Erabilerak eta tresnak. Denbora partekatua Unix-en. Prozesuen lehentasuna: menpekoak, aitak eta semeak.

6. gaia: Unix sistema operatiboa: Komandoak eta Script-ak.

7. gaia: Unix sistema operatiboa: Fitxategi sistemak: motak. Fitxategien sistema hierarkikoari buruzko kontzeptuak. Egitura. Fitxategi sistema sortzea.

**2. atala.—*Adabas datu basea***

8. gaia: Adabas datu basea: Barneko diseinua. Definizioa eta oinarrizko ideiak.

9. gaia: Adabas datu basea: Administrazioa. Programaziorako laguntza erabilerak.

10. gaia: Adabas datu basea: Predict, buffer pool

11. gaia: Adabas datu basea Unix-entzat: eragiketa, mezuak, kodeak.

**3. atala.—*«Natural» programazio lengoaia***

12. gaia: Natural programazio lengoaia. Oinarrizko kontzeptuak, programazio ingurua. Plataformak.

13. gaia: Natural programazio lengoaia. Eremuen definizioa, datuen sarbidea, informazio irteera.

14. gaia: Natural programazio lengoaia, programazio moduak. Aldagaiak eta parametroak. Sistema funtzioak, komandoak

15. gaia: Naturalentzako pantaila sortzailea (Entire Screen Builder).

16. gaia: Naturalentzako pantaila sortzailea (ApplinX).

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIALA-10 PLAZA

**ESP.: OP19/006-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Ingeniari tekniko industriala. 2 Talde Profesionalari, Erdi-mailako teknikaria, 05 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea:

- 6 plaza 2. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).
- 4 plaza 2. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

Plaza horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onetsitako Lan Eskaintza Publikoaren esparruan deitu dira. Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean araututako aldi bateko enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan egin da hamar plazak betetzeko deialdia.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio-lehiaketa.

**4. Betekizunak**

— Beharrezko titulazioa: Ingeniaritza tekniko industriala.

— Beste baldintza batzuk: B gidatzeko baimena.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

Ingeniari tekniko industrial modura, dagozkion lan profesionalak nagusi hurrenaren mende egingo ditu, eta honako funtzio hauek izango ditu esleituta, lanpostuari dagokion arloaren arabera:

1. Partzuergoaren Hornidura eta Saneamendu prozesuko azpiegitura eta instalazioen obra eta proiektu eta azterlanak idaztea.
2. Obra, zerbitzu edo hornidurak kontratatzeko oinarrien pleguak prestatzea, lizitazioetan aurkeztutako eskaintzak teknikoki aztertzea eta horien kontratuak kudeatzea, hala badagokio, horien zuzendari gisa.
3. Partzuergoko departamentuz gaineko eta izaera korporatiboko informazioa kudeatzeko sistemak betetzen parte hartzea.
4. Hornidura eta saneamenduko sistema orokorren kontrol eta jarraipen zuzena egiteko beharrezko datu baseak mantentzen eta eguneratzen laguntzea, baita garatutako jardunarena ere, erabakiak hartzeko prozesua errazteko informazio fidagarria dagoela bermatzeko.
5. Partzuergoak kudeatutako azpiegituretan lanak zuzendu eta gainbegiratzea, baita lan horien zaintza, funtzionamenduaren kontrola eta mantentze-lan operatiboak ere.
6. Ardura daukaten departamentuekin kolaboratzea kalitatea ziurtatzeko, ingurumen kudeaketarako eta arriskuak saihesteko sistemak obra eta diseinuetan txertatzeko, lana arlo horretan indarrean dauden araudiek ezarritako eskakizunekin bat etorriz egiten dela bermatzeko.
7. Instalazioen telekontrol eta teleagindua gainbegiratzea, hobekuntzak proposatuz telekomunikazio sistemetan eta prozesuen instrumentazio eguneraketan.
8. Proposatzen zaizkion Lan Aginduak (LA) aztertzea, sustatzea, planifikatzea, baliozkotzea eta horien jarraipena egitea, agindu horiek betetzen direla koordinatu eta gainbegiratuz, geldialdi denborak gutxituz eta uren kalitatea bermatzen lagunduz.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

9. Garraioaren prozesuak eta logistika koordinatzea eta hobetzea, salgai arriskutsuen garraioa barne, baita erreaktiboen biltegiratzea ere, Laborategiko Zuzendariordetzatik emandako aginduak jarraituz.
10. Dagokion ataleko prozesu eta azpiegituren lanari buruzko erregistroak zuzentzea, kontrolatzea eta, hala badagokio, egitea, kostuen kontrola eta lan prozedura normalizatuak egitea, baita beste dokumentu batzuk ere, kalitatea kudeatzeko sistemei, laneko arriskuen prebentzioari, ingurumenaren kudeaketari eta, hala badagokio, norbera babesteko planei dagozkienak.
11. Bere ardurapean dituen langileen hileko lanaren parteak baliozkotzea, lan egutegien zirriborroak egitea eta, oro har, bere ardurapean dituen langileen lan harremanak zaintzea.
12. Bere ardurapeko lanak garatzeko beharrezko gastuen urteko aurrekontua definitu eta proposatzea eta, onartu ondoren, horren jarraipen eta kontrola egitea, desbideratzeak antzemanez gero neurri zuzentzaileak proposatuz.
13. Agindutako prozesuetan teknologia berriak aplikatzeko bideragarritasun tekniko eta ekonomikoko azterlanak garatzen kolaboratzea.
14. Bere eskumen esparru barruan aplikazio alderdiak dituzten prozesu edo teknologia berrien ikerketa proiektuetan parte hartzea.
15. Partzuergoa ordezkatzeko izendatuko duten elkarte edo talde profesionaletan parte hartzea.
16. Mantentze-lanen erosketak eta hornidura teknikoa kudeatzea, premiazkoa zein planifikatutakoa, baita mantentze-lanen arloek eta, hala badagokio, biltegien kudeaketa arloek proposatutako eskaeren gaineko administrazio kontrola ere.
17. Instalazioen matxura parteak egiten, kudeatzen eta jarraipena egiten kolaboratzea, baita prebentzioko mantentze-lanen eta mantentze-lan zuzentzaileen kasuan ere, instalazio mekaniko, elektriko zein elektronikoetan.
18. Bere ardurapean dituen langileen prestakuntzaren edukietan eta plangintzan parte hartzea, ezagutza eguneratua izan dezan bere lan arloko alderdi guztietan. Bere kudeaketa eremuan langile berriak trebatzeko ebaluazioaren arduraduna ere izango da.
19. Bere talde profesionalari dagozkion berezkoak, hala agintzen bazaizkio.

**6. Oposizio fasea**

— 1A ariketan galdera sorta bat idatziz erantzun beharko da; erantzun alternatiboak izango ditu; Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz, ezagutza orokorreko gai zerrendari buruzko galderen multzo itxi bati buruzkoak izango dira.

— 1B ariketan ezagutza berezien gaineko gai zerrendatik ausaz ateratako hiru gai garatu beharko dira. Horretarako, Epaimahaiak gai bat zozkatuko du atal bakoitzeko; hautagaiek aukeratutako bost gaietako hiru garatu beharko dituzte.

— 2. ariketan ezagutza berezien gai zerrendako bost kasu praktiko aurkeztuko dira, eta horien artean hautagaiek hiru aukeratu eta garatu beharko dituzte.

— 3. ariketan azterketa psikoteknikoak egin beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak**

Aurkeztutako esperientzia 11.2.1 Oinarri Orokorrean ezarritako A eta B ataletako azpiatal hauei jarraiki aztertuko da:

— A1 eta B1: Ingeniari tekniko industrial moduan daukan esperientzia, saneamendu edo hornidura instalazio eta azpiegiturak eraiki, martxan izan edo mantentze-lanen obra zuzendaritza eta proiektuak idazten.

— A2 eta B2: Ingeniari tekniko industrial moduan daukan esperientzia, saneamendu edo hornidura instalazio eta azpiegiturak eraiki, martxan izan edo mantentze-lanen

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

obra zuzendaritza eta proiektuak idazten, edo saneamendu instalazio konbinatuenak, obra publikoko beste sektore batzuekin (errepideak, portuak, ibaiak, etab.).

— A3 eta B3: Ingeniari tekniko industrial moduan daukan esperientzia, obra publikoko edo beste hiri zerbitzu batzuetako instalazio eta azpiegiturak eraiki, martxan izan edo mantentze-lanen obra zuzendaritza eta proiektuak idazten.

— A4 eta B4: Aurreko ataletan aipatutako ez bestelako esperientzia ingeniari tekniko industrial modura, betiere plazaren funtzioekin lotura badauka.

Goi ingeniari modura aurkeztutako esperientziaren balorazioa egiteko erabiliko den maila egindako azpiatalaren azpikoa izango da (A1 izanez gero, balorazioa A2 mailan egingo da; B2 izanez gero, balorazioa B3 mailan egingo da, etab.). Ez da esperientziaren balorazioa egingo azkenaren azpiko azpiatala aplikatzea badagokio.

**8. Espezialitateak eta destinoak**

Deitutako plazak espezialitate hauetan banatu dira, eta 21.6 Oinarri Orokorreko aurreikuspena aplikatuko zaie helburuko lana esleitzeko:

1. EUTen Ustiapenari atxikitako lanpostu bat.
2. Hornidura eta presa sareen ustiapenari atxikitako lanpostu bat.
3. Saneamenduko ustiapenera atxikitako (labea) lanpostu bat.
4. Saneamendu sareen ustiapenera atxikitako lanpostu bat.
5. Iraunkortasun, teknologia eta berrikuntzara atxikitako bi lanpostu.
6. Hornidurako mantentze-lanei atxikitako lanpostu bat (parke mugikorra eta biltegiak).
7. Hornidura EUTen mantentze-lanei atxikitako lanpostu bat.
8. Saneamendu sareen mantentze-lanei atxikitako lanpostu bat.
9. Saneamenduko mantentze-lanen plangintzara atxikitako lanpostu bat.

## II. GAI ZERRENDA

### A) Ezagutza orokorren gai zerrenda

1. gaia: Saneamenduaren prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

2. gaia: Hornidura prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

3. gaia: Uren araubide juridikoa: Herri jabaria. Plangintza hidrologikoa. Ur emakidak. Uren erabilerak eta aprobetxamenduak. Uren babesa. Isurketa baimenak. Isurketaren kontrol kanona. Ur masak. Kontinenteko urak, kostaldeko urak eta trantsizio urak.

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Prozeduretako hizkuntza. Izapideen erantzukizuna. Ebazteko betebeharra.

5. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

6. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

7. gaia: Generoaren arloko politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltza-

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

rraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

8. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

9. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren zuzendaritza-organoak eta eskudantziak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

10. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Lan arriskuen prebentzioari buruzkoa, eta 39/97 ED Prebentzio Zerbitzuen Araudia.

11. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

12. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

13. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

14. gaia: Kalitatearen Kudeaketa Sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatearen Kudeaketa Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

15. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

### B) Ezagutza berezien gai zerrenda

**1. atala.—*Hidraulika***

1. gaia: Hodiak, xafla libreetan.

Karga galeraren oinarrizko ekuazioak. Araubide hidraulikoa. Energiaren ekuazioa (Bernouilli). Formula enpirikoak.

2. gaia: Hodiak presioan.

Karga galeren oinarrizko ekuazioa (Colebrook). Araubide hidraulikoa. Formula enpirikoak. Ariete kolpea.

3. gaia: Kontrol elementuak.

— Zuloak. Hondakindegiak. Emari neurgailuak.
— Mailako zundak: funtzioa, motak; neurketa printzipioa.
— Kaudalimetroak: funtzioa, motak; neurketa printzipioa.

4. gaia: Ponpak.

— NPS.
— Bihurgune bereizgarriak.
— Akoplamenduak (seriea, paraleloa).
— Ponpa motak eta aplikazioak.

**2. atala.—*Hornidura***

5. gaia: Hartuneak eta urtegiak.

— Azaleko uren hartuneak. Motak. Presa txikiak eta hartune obrak.
— Lur azpiko uren hartuneak. Erauzteko putzuak. Kontrol piezometrikoa.
— Urtegiak eta presak. Presa baten oinarrizko ezaugarriak eta tipologia. Ur hartuneak eta hustubide organoak. Ustiapena eta auskultazioa.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

6. gaia: Lehen mailako sarea.

— Garraio eta adukzio sareak. Kanalak, xafla libreetan. Obra bereziak. Sifoiak. Akueduktuak. Hustubideak. Nahitaezko hodiak. Bentosak.

— Banaketa eta erregulazio biltegiak. Helburua. Dimentsioak. Tipologiak. Kontrol sistemak eta oinarrizko ekipamenduak. Mantentze-lanak egitea, garbitzea eta zaintzea.

7. gaia: Tratamendua.

Arbastua. Erreaktiboen dosifikazioa. Motak eta ezaugarriak. Oxidazio aurrekoa. Koagulazioa eta flokulazioa. Dekantazioa eta iragaztea. Zuzenketa kimikoa, egokitzapena eta edateko uraren esterilizazioa. pHa zuzentzea. Oxidazioa eta desinfekzioa kloro eta deribatuen bidez. Ozonizazioa. Uraren fluorazioa.

8. gaia: Lokatza EUT batean. Sortze iturriak. Purga, garraioa eta homogeneizazioa. Loditzea eta deshidratazioa.

9. gaia: Prozesuaren kontrol eta instrumentazio sistemak. Tokiko kontrola eta kontrol nagusia EUT batean. Prozesuko automatak (PLC). Bisualizazio sistemak eta Scada eragiketa. Uraren kalitate eta prozesuaren neurketa tresnak.

**3. atala.—*Saneamendua***

10. gaia: Industria eta etxeko hondakin urak.

— Bolumenak eta zuzkidurak.

— Ezaugarriak (fisikoak, kimikoak, biologikoak).

— Aurretratamendua. Aurretratamenduen helburua.

11. gaia: Kolektoreen unitate sareak.

— Diseinua. Kalkulu emariak.

— Isurketa ingurune hartzailean.

— Ekaitz uren kutsadura murriztu eta kontrolatzeko gailuak.

— Gainezkabideak. Tipologia, diseinua, mekanismoak eta erregulazioa.

12. gaia: Hondakin uren araztegiak —Ura—.

— Aurretratamendua.

— Lehen mailako tratamendua. Prozesu fisiko-kimikoak.

— Prozesu biologikoak eta bigarren mailako dekantazioa.

— Nitrogenoa eta fosforoa desagerraraztea.

— Desinfektatzea. Efluenteak berrerabiltzea.

13. gaia: Hondakin uren araztegia —Lokatzak—.

— Lokatzak HUA batean ekoiztea.

— Loditzea

— Digestioa.

— Deshidratazioa.

— Lokatza desagerraraztea: alternatibak.

14. gaia: Lokatzak erretzea.

— Oinarri fluidifikatuko labeak.

— Ihes gasen arazketa. Deskribapena, funtzionamendua eta kontrola.

— Oinarri fluidifikatuko labeen berreskurapen energetikoa. Helburua eta funtzionamendua.

15. gaia: Kiratsen tratamendua saneamendu sistemetan (sareak eta HUAk).

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

Kirats iturriak, murrizketa, bilketa eta aireztapena. Kiratsak desagerrarazteko tratamendu sistemak. Aukeraketa irizpideak.

**4. atala.—*Mantentzea***

16. gaia: Mantentzearen kontzeptua. Mantentze motak. Mantentze gamak.

17. gaia: Inbertsio eta aktibo industrialak erostea.

— Aktibo baten bizitza faseen oinarrizko diagramak. Birjartze puntua.

— Aktiboen amortizazioa eta berrikuntza. Ekipamenduen bizitza kotuen bitartez. Inbertsio kostuak. Ustiapen kostuak. Aktiboen amortizazio teknikoa. Zahartze teknikoa, naturala eta erabileraren ondoriozkoa.

18. gaia: Mantentzearen formulazio zientifikoa. Kontzeptua, neurria eta fidagarritasunaren estatistika legeak. Mantengarritasunaren idem. Eskuragarritasunaren idem.

19. gaia: Mantentze-lanak kudeatzeko informazio-sistemak: Mantentze-lanak kudeatzeko informazio fluxuei buruzko oinarrizko printzipioak. UNE-EN 13460-2003 araua mantentze-lanei buruzko agirietan.

20. gaia: Lan aginduak. Lan aginduaren fluxua antolaketan. Lan aginduen egoera. Metrikak eta KPI.

21. gaia: Mantentze baliabideen kudeaketarako metodo zehatzak: Giza baliabideak kudeatzeko lan karga zehaztea. Mantentze kontratuak hirugarrenekin. Kontuan hartu beharreko alderdiak.

**5. atala.—*Proiektuen kudeaketa***

22. gaia: Proiektuak kudeatzeko metodologia eta tresna aurreratuak.

Project Lifecycle Management (PLM). Saneamendu eta hornidurako proiektuen bizi zikloa kudeatzea. Building Information Modeling (BIM).

23. gaia: Obraren ingurumen kudeaketa. Ingurumen zaintzako planak. Hondakinak kudeatzeko planak eta azterlanak. Hondakin arriskutsuak eta ez arriskutsuak: identifikazioa, dokumentazioa eta kudeaketa. Hondakinen kudeaketako azken txostena.

24. gaia: Hornidura eta saneamendu sistemetan gehien erabilitako hodi motak. Deskribapena eta ezaugarriak. Batura eta juntura motak. Hodiak babestea. Pintura eta galbanizatua. Estaldura termoplastikoak. Babes katodikoa.

25. gaia: Instalazioak zerbitzuan jartzea. Etapak eraikuntza eta muntaketa fasea bukatzen denetik obra eraiki arte. Instalazioak legeztatzea. Martxan jartzea eta errendimendu probak.

26. gaia: Lan arriskuen prebentzioa, segurtasuna eta osasuna eraikuntzan, segurtasun eta osasun azterlanak eta osasun eta segurtasuneko planak. Lanak espazio mugatuetan.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIAL ELEKTRIKOA-2 PLAZA

**ESP.: OP19/007-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

### 1. Izena

Ingeniari tekniko industrial elektrikoa. 2 Talde Profesionalari, Erdi-mailako teknikaria, 05 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

### 2. Plazak eta txandak

— Txanda librea:

- Plaza bat 2. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).
- Plaza bat 2. hizkuntza eskakizunarekin (ez derrigorrezkoa).

Plaza horiek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onetsitako Lan Eskaintza Publikoaren esparruan deitu dira. Estatuaren 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean araututako aldi bateko enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan egin da bi plaza hauek betetzeko deialdia.

### 3. Hautaketa sistema

Oposizio-lehiaketa.

### 4. Betekizunak

— Beharrezko titulazioa: Ingeniaritza tekniko industriala, elektrizitatean espezializatua edo elektronika industrialean espezializatua.

— Beste baldintza batzuk: B gidatzeko baimena.

### 5. Lanpostuaren funtzioak

Ingeniari tekniko industrial elektriko modura, dagozkion lan profesionalak nagusi hurrenaren mende egingo ditu, eta honako funtzio hauek izango ditu esleituta, lanpostuari dagokion arloaren arabera:

1. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko azpiegituretan automatizazio eta kontrol instalazio elektrikoen proiektuak idazten eta azterlanak prestatzen parte hartzea, eta, hala badagokio, horien arduradun teknikoekin kolaboratzea.
2. Pleguak prestatzea instalazio elektrikoei, elektrizitatea sortzeari edo energia kontsumitzaileei lotutako zerbitzu, hornidura eta obrak kontratatzeko, baita kasuan kasuko kontratuen jarraipena eta zuzendaritza egitea ere.
3. Proiektu elektrikoak eta programazio eta lan elektrikoetarako protokoloak idaztea, baita kasuan kasuko kontratuen jarraipen eta zuzendaritza egitea ere.
4. Kontratu zehatzetan, saneamendu eta hornidura sistemetan egin beharreko instalazio elektriko eta kontrol instalazioen garapen, fabrikazio, muntaketa eta proba lanak ikuskatzea eta kontrolatzea.
5. Instalazio elektrikoak ikuskatzea eta egiaztatzea.
6. Obren kontratuen kudeaketan parte hartzea, horien zuzendariarekin batera. Hornidura eta saneamenduko azpiegiturak zerbitzuan jartzeko lanak koordinatzea eta gainbegiratzea, ustiapen faseko arazoak gutxitze aldera.
7. Instalazio elektrikoetan maniobrak egitea edo horretan kolaboratzea.
8. Energia neurketa eta entseguak eta neurketa eta entsegu elektrikoak egitea.
9. Partzuergoan ezarriko diren departamentuz gaineko eta izaera korporatiboko informazioa kudeatzeko sistemak betetzen parte hartzea.
10. Ardura daukaten departamentuekin kolaboratzea kalitatea ziurtatzeko, ingurumen kudeaketarako eta arriskuak saihesteko sistemak obra eta diseinuetan txertatzeko, Zuzendariordetzaren lana arlo horretan indarrean dauden araudiek ezarritako eskakizunekin bat etorriz egiten dela bermatzeko.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

11. Bere ardurapean dituen langileen prestakuntzaren edukietan eta plangintzan parte hartzea, ezagutza eguneratua izan dezan bere lan arloko alderdi guztietan. Bere kudeaketa eremuan langile berriak trebatzeko ebaluazioaren arduraduna ere izango da.
12. Bere talde profesionalari dagozkion berezkoak, hala agintzen bazaizkio.

**6. Oposizio fasea**

— 1 ariketako A atalean galdera sorta bat idatziz erantzun beharko da; erantzun alternatiboak izango ditu; Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz, ezagutza orokorreko gai zerrendari buruzko galderen multzo itxi bati buruzkoak izango dira.
— 1 ariketako B atalean ezagutza berezien gaineko gai zerrendatik ausaz ateratako hiru gai garatu beharko dira.
— 2. ariketan kasu praktikoak ebatzi beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.
— 3. ariketan azterketa psikoteknikoak egin beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak**

Egiaztatutako esperientzia 11.2.1 oinarri orokorretan xedatutako A eta B atalen azpiatal hauen arabera baloratuko da:

— A1 eta B1: Ingeniari tekniko industrial elektriko modura duen esperientzia, saneamendu eta hornidurako azpiegiturak diseinatu, eraiki, martxan jarri edo mantentzen.
— A2 eta B2: Ingeniari tekniko industrial elektriko modura duen esperientzia, beste azpiegitura batzuekin konbinatuz saneamendu eta hornidurako azpiegiturak diseinatu, eraiki, martxan jarri edo mantentzen.
— A3 eta B3: Ingeniari tekniko industrial elektriko modura duen esperientzia, obra publiko edo industria sektorean diseinatu, eraiki, martxan jarri edo mantentzen.
— A4 eta B4: Aurreko ataletan aipatutako ez bestelako esperientzia ingeniari tekniko industrial modura, betiere plazaren funtzioekin lotura badauka.

Goi ingeniari elektriko modura aurkeztutako esperientziaren balorazioa egiteko erabiliko den maila egindako azpiatalaren azpikoa izango da (A1 izanez gero, balorazioa A2 mailan egingo da; B2 izanez gero, balorazioa B3 mailan egingo da, etab.). Ez da esperientziaren balorazioa egingo azkenaren azpiko azpiatala aplikatzea badagokio.

## II. GAI ZERRENDA

### A) Ezagutza orokorren gai zerrenda

1. gaia: Saneamenduaren prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.
2. gaia: Hornidura prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.
3. gaia: Uren araubide juridikoa: Herri jabaria. Plangintza hidrologikoa. Ur emakidak. Uren erabilerak eta aprobetxamenduak. Uren babesa. Isurketa baimenak. Isurketaren kontrol kanona. Ur masak. Kontinenteko urak, kostaldeko urak eta trantsizio urak.
4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Prozeduretako hizkuntza. Izapideen erantzukizuna. Ebazteko betebeharra.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

5. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

6. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

7. gaia: Genero politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

8. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

9. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren organo arautzaileak eta aginpideak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

10. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua.

11. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

12. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

13. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen kudeaketako sistemari eustea. Ziurtagiriak.

14. gaia: Kalitatearen kudeaketa sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatea kudeatzeko sistemari eustea. Ziurtagiriak.

15. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

**B) Ezagutza berezien gai zerrenda**

1. gaia: Goi Tentsioko Instalazio Elektrikoen Araudiaren interpretazioa. 337/2014 ED. (Azterketa guztietan araudia kontsultatu ahalko da).

2. gaia: Goi tentsioko linea elektrikoetan segurtasun berme eta baldintza teknikoei buruzko araudiaren interpretazioa (223/2008 ED) eta Jarraibide Tekniko Osagarriak: (Azterketa guztietan araudia kontsultatu ahalko da).

ITC-BT-04 Goi tentsioko lineak zerbitzuan jartzea eta dokumentazioa.

ITC-LAT-05 Egiaztapenak eta ikuskaritzak.

ITC-LAT-06 Lur azpiko lineak, eroale isolatuekin.

ITC-LAT-09 Aurreproiektuak eta proiektuak.

3. gaia: Behe tentsioko araudi elektroteknikoaren interpretazioa. 842/2002 ED eta jarraibide tekniko osagarriak (azterketa guztietan araudia kontsultatu ahalko da).

4. gaia: Sistema elektrikoaren neurketa puntuen araudi bateratuta. 1110/2007 ED (Azterketa guztietan araudia kontsultatu ahalko da).

5. gaia: Goi tentsioko instalazio elektrikoak Aparamenta elektrikoa, ezaugarri nagusiak. Sistema elektrikoen arkitektura. Babes funtzioak. Sistema elektrikoen babesa. Barren babesa. Loturen babesa (lineak eta kableak). Transformadoreen babesa.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

6. gaia: Neurketa eta egiaztatze gailuak. Potentzien neurria. Neurketak amperemetro, voltmetro eta wattmetroekin. Potentzia trifasikoaren neurketa. Potentzia aktiboa eta erreaktiboa.

7. gaia: Transformadoreak. Potentzia transformadoreen oinarrizko kontzeptuak. Banaketa transformadoreen motak. Banaketa transformadoreen babesak. Babes eta neurketako transformadoreen oinarrizko kontzeptuak.

8. gaia: Korronte alternoko zirkuituak. Tentsioak eta intentsitateak. Potentzia korronte alternoan. Potentzia faktorea. Kondentsadoreen baterien kalkulua. Korronte alternoko zirkuituen akoplamendua seriean eta paraleloan. Tentsio eta intentsitate sinple eta konposatuak. Konexioa izar modura eta konexioa triangeluan. Korronte trifasikoen potentzia.

9. gaia: Makina elektriko birakariak. Makina asinkronoen eta sinkronoen oinarrizko kontzeptuak. Motor sinkronoak piztea. Motor asinkronoen babesak. Motor asinkronoentzako abiarazle estatikoei buruzko oinarrizko kontzeptuak. Motor asinkronoentzako maiztasun erregulagailuei buruzko oinarrizko kontzeptuak.

10. gaia: Lur harguneare neurria. 3 hariko neurria. 4 hariko neurria, normala eta hautatua. Lur konexioko neurria pikarik gabe. Begizta neurketa. Lurzoruaren erresistibitate neurketa.

11. gaia: Gaintentsioak. Tximistorratzei buruzko oinarrizko kontzeptuak. Gaintentsioen aurkako babesak goi tentsioan eta tentsio baxuan. Ferroerresonantziari buruzko oinarrizko kontzeptuak.

12. gaia: Automatizazio industriala. Kontzeptuak eta aplikazioak. Automata industrialak: funtzionamendu printzipioak, ezaugarriak, osagaiak, tipologia, aplikazioak. Kontrol, maniobra eta indar koadroak PLC bidez kontrolatzea.

13. gaia: Eskema elektrikoen diseinu eta interpretazioa (indarra eta kontrola). Automatismoak logika kableatuarekin.

14. gaia: Ekainaren 8ko 614/2001 EDren interpretazioa, arrisku elektrikoen aurrean langileen osasuna eta segurtasuna zaintzeari buruzko gutxieneko xedapenak jasotzen dituena.

15. gaia: Behe, erdi eta goi tentsioko instalazio elektrikoak egitea eta horien kontrola: erretilu elektrikoen eta kontrol erretiluen muntaketa. Kanalizazioak egitea. Kable elektrikoa, kontrol eta komunikazioak egitea eta konexioak ezartzea. Ekipo elektrikoak muntatzea eta konexioak egitea.

16. gaia: Instalazio elektrikoak martxan jartzea: tailerrean ikuskatzea, tailer eta kanpoan egin beharreko entsegu elektrikoak, kanpoan martxan jartzea, administrazio izapideak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

INGENIARI TEKNIKO INDUSTRIAL KIMIKOA-PLAZA 1

**ESP.: OP19/008-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Ingeniari tekniko industrial kimikoa. 2 Talde Profesionalari, Erdi-mailako teknikaria, 05 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea: Plaza bat 2. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).

Plaza hau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako Lan Eskaintza Publikoaren testuinguruan deitu da, 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean arautută aldi bateko enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio-lehiaketa.

**4. Betekizunak**

— Beharrezko titulazioa: Ingeniaritza tekniko industriala, kimika industrialeko espezializazioa.

— Beste baldintza batzuk: B gidatzeko baimena.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

1. Dagokion zona osatzen duten udalerrietan kokatutako industrien isurketak aztertzea eta ezaugarriak azaltzea. Dagokion zona txandakatu, handitu, txikitu edo aldatu egin daiteke, beharrizanen arabera.

2. Erabiltzaileak sailkatzea proposatzea, kolektorera egindako isurketaren araudian ezarritakoaren arabera.

3. Industria isurketetan aplikatu beharreko zuzenketak aztertzea, saneamendu sistemara gehituko direnak.

4. Aurretratamendu aplikagarrien instalazioak aztertzea, aipatutako zuzenketak edo industriek proposatutako irtenbideak lortzeko.

5. Kolektorera isurtzeko baimen proposamenak idaztea, prestatzea eta izapidetzea, Zuzendaritza Batzordearen aurrean izapidetzeko, baita aldaketak, baliogabetzeak edo lekapenak ere.

6. Zonako isurketak kontrolatzeko estrategia proposatzea eta gauzatzea, kasuan kasuko isurketa baimenean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.

7. Isurketa baimenaren titularra den industria orori kontrol bisitak egitea, aurretratamenduaren instalazioaren funtzionamendua ikusteko; tartean honako alderdi hauek zainduko dira:

— Aurretratamenduaren instalazioaren funtzionamendua.

— Industria isurketen laginak hartzea, baimenean finkatutako isurketa mugak betetzen direla egiaztatzeko eta saneamendu tasa aplikatzearen mende dagoen kutsadura karga kalkulatzeko.

— Isurketa tasa aplikatzeko isurketa emaria zehazteko informazioa lortzea.

8. Uraren urteko balantzea definitzea, isurketa baimena duen industriarekin batera.

9. Espedienteak irekitzea proposatzea, kolektorera isurtzeko baimenean ezarritakoa ez betetzeagatik.

10. Proposatuko diren jarduketetan kolaboratzea, isurketa industrialei lotutako arazoak aztertzeko.

11. Dagozkion gaiei lotutako aldizkako txostenak edo txosten zehatzak prestatzea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

12. Dagokion zonako udaletako nahitaezko txostenak prestatzea industria isurketak kontrolatzeari dagokionez.

13. Isurketa industrialetarako dauden datu baseak prestatzea eta eguneratzea.

14. Saneamendu sare eta araztegien ustiapen departamentuekin kolaboratzea saneamendu sare eta araztegien arazoak aztertu eta konpontzeko, industria kutsagarrien eta beste isurketa batzuen ondorioz.

15. Lan esparruan langile berriak trebatzen kolaboratzea.

16. Saneamendu obra eta proiektuen atalarekin kolaboratzea industria isurketak saneamendu sareetan gehitzen.

17. Ingurumen kudeaketa, arriskuen prebentzioa eta kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzen eta mantentzen parte hartzea.

18. Esleitzen zaizkion gainerako lanak, bere talde profesionalari dagozkionak.

**6. Oposizio fasea**

— 1 ariketako A atalean galdera sorta bat idatziz erantzun beharko da; erantzun alternatiboak izango ditu; Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz, ezagutza orokorreko gai zerrendari buruzko galderen multzo itxi bati buruzkoak izango dira.

— 1 ariketako B atalean ezagutza berezien gaineko gai zerrendatik ausaz ateratako hiru gai garatu beharko dira.

— 2. ariketan kasu praktikoak ebatzi beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

— 3. ariketan azterketa psikoteknikoak egin beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. Esperientziaren merezimenduaren baloraziorako irizpide zehatzak**

Aurkeztutako esperientzia 11.2.1 Oinarri Orokorrean ezarritako A eta B ataletako azpiatal hauei jarraiki aztertuko da:

— A1 eta B1: Ingeniari tekniko industrial kimiko modura duen esperientzia, saneamendu sistemetako isurketei lotutako funtzioetan.

— A2 eta B2: Ingeniari tekniko / industrial kimiko modura duen esperientzia, beste azpiegitura batzuekin konbinatutako saneamendu eta hornidurako azpiegiturak diseinatu, eraiki, martxan jarri edo mantentzen.

— A3 eta B3: Ingeniari tekniko / industrial kimiko modura duen esperientzia, obra publiko edo industria sektorean diseinatu, eraiki, martxan jarri edo mantentzen.

— A4 eta B4: Aurreko ataletan aipatutako ez bestelako esperientzia ingeniari tekniko industrial modura, betiere plazaren funtzioekin lotura badauka.

Goi ingeniari kimiko modura aurkeztutako esperientziaren balorazioa egiteko erabiliko den maila egindako azpiatalaren azpikoa izango da (A1 izanez gero, balorazioa A2 mailan egingo da; B2 izanez gero, balorazioa B3 mailan egingo da, etab.). Ez da esperientziaren balorazioa egingo azkenaren azpiko azpiatala aplikatzea badagokio.

II. GAI ZERRENDA

**A) Ezagutza orokorren gai zerrenda**

1. gaia: Saneamenduaren prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

2. gaia: Hornidura prozesua. Tratamenduaren ohiko prozesua definitzea. Instalazioaren elementuak eta beren zeregina deskribatzea. Alderdi teknikoen definizio orokorra. Eragiketa nagusiak.

3. gaia: Uren araubide juridikoa: Herri jabaria. Plangintza hidrologikoa. Ur emakidak. Uren erabilerak eta aprobetxamenduak. Uren babesa. Isurketa baimenak. Isurketaren kontrol kanona. Ur masak. Kontinenteko urak, kostaldeko urak eta trantsizio urak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

4. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena: Pertsonek administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Prozeduretako hizkuntza. Izapideen erantzukizuna. Ebazteko betebeharra.

5. gaia: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabileraren normalizazioari buruzko oinarrizkoa.

6. gaia: 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duena: Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Jokabide kodea. Diziplina araubidea.

7. gaia: Genero politikak: 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa. Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerakoa.

8. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (I): Eratzea eta osatzen duten erakundeak. Partzuergoaren helburuak eta eskumenak. Nortasun eta gaitasun juridikoa. Tarifak. Administrazio ahalmenak.

9. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa (II): Partzuergoaren zuzendaritza-organoak eta eskudantziak. Funtzionamendua. Araubide ekonomikoa.

10. gaia: Laneko arriskuen prebentzioa 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa eta 39/1997 Errege Dekretuak onartutako Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua.

11. gaia: 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.

12. gaia: 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena.

13. gaia: Ingurumen Kudeaketako Sistema: Kontzeptuak. Ingurumen Kudeaketako Sistemaren betekizun nabarmenak. Ingurumen Kudeaketako Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

14. gaia: Kalitatearen Kudeaketa Sistema: Kontzeptuak. Ohiko dokumentazioa kalitatea kudeatzeko sistemetan. Kalitatearen Kudeaketa Sistema mantentzea. Ziurtagiriak.

15. gaia: Ofimatika: Word, Excel eta Access.

### B) Ezagutza berezien gai zerrenda

**1. atala.—*Ikerkuntza industriala eta industria isurketen kontrola***

1. gaia: Isurketen ezaugarriak zehazteko estrategia. Laginketa motak.

2. gaia: Isurketa definitzen duten parametroak, kasuan kasuko industria sektorearen arabera. Agertzen ari diren kutsagarriak, substantzia lehenetsiak eta preferenteak. Substantzia kutsagarrien erreferentziazko analisien metodoak.

3. gaia: Jarraian kontrolatu beharreko parametroak.

4. gaia: Isurketa industrialen telekontrola. Prozesuen automaten oinarrizko kontzeptuak (PLC`S ), seinale analogiko eta digitalak, kontrol lazoak. Uraren kalitate eta prozesu kontrolaren instrumentazioa Bisualizazio sistemak eta Scada eragiketa.

**2. atala.—*Aurretratamenduaren azterlana***

5. gaia: Isurketa bati aplikatu beharreko aurretratamendu tipoak, industria sektorearen arabera.

6. gaia: Aurretratamendu baten azterlan ekonomikoa.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**3. atala.—*Aurretratamendu instalazioak eta prozesuak hiri-ko hua industrial batean***

7. gaia: Aurretratamendua, dekantazioa eta flotazioa.
- Arbastua, harea kentzea, koipea kentzea.
- Tratamendu fisiko-kimikoa. Erabilitako erreaktiboak, koagulazioa eta flokulazioa.
- Dekantazioa: tipologia eta dimentsioak.
- Flotazioa: tipologia eta dimentsioak.

8. gaia: Arazketa biologikoa.
- Tratamendu biologikoko prozesuak: dimentsioak eta prozesuaren kontrola.
- Prozesu biologiko aurreratuak: MBR, MBBR, SBR.
- Ustiapen arazo nagusiak eta inhibitzaileen eraginak.
- Gehiegizko lokatzak.

9. gaia: Fintze tratamenduak.
- Fosforoa desagerraraztea.
- Nitrogenoa desagerraraztea. Nitrifikazioa-Desnitrifikazio biologikoa.
- Desinfektatzea.10. gaia: Tratamenduko beste prozesu batzuk.
- Tratamenduak mintzekin: Nanofiltrazioa, Ultrafiltrazioa, Mikrofiltrazioa, alderantzizko osmosia.
- Hutsean lurruntzea.

11. gaia: Lokatzen tratamendua.

**4. atala.—*Dimentsio hidraulikoak***

12. gaia: Saneamendu sistemetara aplikatutako hidraulika.
- Hodiak, xafla libreetan.
- Hodiak presioan.
- Ponpatze instalazioak.

13. gaia: Emariak, hodiak, tutuak, ubideak neurtzea. Kalibrazioa eta kaudalimetroak egiaztatzea.

**5. atala.—*Legedia***

14. gaia: Oinarrizko legislazioa: 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa, IPPC Zuzentaraua (Integrated Pollution Prevention and Control), E-PRTR erregistroa (Emisio eta Iturri Kutsagarrien Estatuko Erregistroa), teknologia erabilgarri onenak eta BREF agiriak (Best available techniques Reference document), Ingurumen-erantzukizuna.

15. gaia: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Saneamendu eta Arazketa Ordenantza Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko zerga ordenantza. Industriei aplikagarriak zaizkien saneamendu tasak.

**6. atala.—*Hondakin urei lotutako lanei aplikatutako segurtasuna***

16. gaia: Arriskuak tratamendutegi eta saneamendu kolektoreen sareetan. Arreta puntuak.

**7. atala.—*Kalitate sistemak***

17. gaia: UNE-EN ISO/IEC 17.020:2012 Araua.

**8. atala.—*Informatika***

18. gaia: AutoCAD: kontzeptu orokorrak, marrazketa aginduak eta planoak aldatzea, inprimagailuen konfigurazioa eta eskala desberdinetan inprimatzea.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

TELEKOMUNIKAZIOETAKO ERDI MAILAKO TEKNIKARIA-PLAZA 1

**ESP.: OP19/009-OINARRI BEREZIAK**

I. DEIALDIA

**1. Izena**

Telekomunikazioetako erdi mailako teknikaria. 2 Talde Profesionalari, Erdi-mailako teknikaria, 05 Eskalari dagozkion lan kontratudun langileak.

**2. Plazak eta txandak**

— Txanda librea: Plaza bat 2. hizkuntza eskakizunarekin (derrigorrezkoa).

Plaza hau Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak onartutako Lan Eskaintza Publikoaren testuinguruan deitu da, 2018ko Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legearen hogeita hamaikagarren xedapen gehigarriko Bat.5 atalean araututako aldi bateko enplegua egonkortzeko prozesuaren barruan.

**3. Hautaketa sistema**

Oposizio-lehiaketa.

**4. Betekizunak**

— Beharrezko titulazioa: Telekomunikazioko Ingeniaritza Teknikoa edo Industria Ingeniaritza Teknikoa, Elektronika Industrialeko espezialitatea.

— Beste baldintza batzuk: B gidatzeko baimena.

**5. Lanpostuaren funtzioak**

1. Teleagindu eta automatizazio proiektuen azterlanak prestatzea, kontratazioak egitea, gauzatzea eta martxan jartzea, planteatutako beharrizanei erreparatuz, estandarizatzea zainduz eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontrol plataforma banatuan integratuz.

2. Egunerokotasunean sor daitezkeen teknologia arloko eguneratzeak, berritzeak, berriz programatzea, aldatzea eta handitzea lortzeko jarduketak eta proiektuak formalizatzea, kontrol, komunikazio eta ikusteko prestazioak bermatzeko (ScadaS) kasuan kasuko saneamendu eta horniduren ustiapenetan.

3. Laguntza tekniko, ingeniaritza eta integrazio lanetan kolaboratzea eta/edo zuzentzea, hala badagokio, Partzuergoak sinatuko dituenak dagozkion kontratuen bidez, aurreko guztia garatzeko laguntza modura.

4. Komunikazio kontratuetan laguntza ematea eta/edo zuzentzea, horien jarraipena eta zerbitzuaren kalitatea formalizatuz.

5. Datu baseen kudeaketan laguntzea, baita informazio sistemen mantentze elektronikoan ere, Partzuergoan sail artean edo modu korporatiboan ezarriko direnak.

6. BBUPren telekomunikazio sistema korporatiboak kudeatzen laguntzea, teknologia berriak egokitzea bultzatzeko.

7. Ustiapeneko langileak trebatzeko prozesuan parte hartzea instalatutako sistemak erabiltzen, lana eraginkortasunez egiteko aski ezagutza dutela bermatuz.

8. Hornidura, zerbitzu, kanpo laguntzen eta inbertsioen lizitazioetarako pleguak definitzea eta kudeatzea.

9. Obra eta proiektuen zehaztasun tekniko orokorrak prestatzen kolaboratzea, instalazio berria denean zein existitzen den instalazio bat eguneratu edo berritzeari dagokionez, dagokion arloan.

10. Legeak ahalbidetzen dituen eskumeneko arloetan proiektuak eta azterlanak idaztea eta sinatzea.

11. Oro har, zuzendariordetzaren telekomunikazio arloaren jardunari lotutako lan oro egitea, nagusiek agindutakoak, bere talde profesionalari dagozkionak.

eek: BAO-2019a114-(II-2296)

**6. Oposizio fasea**

— 1 ariketako A atalean galdera sorta bat idatziz erantzun beharko da; erantzun alternatiboak izango ditu; Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz, ezagutza orokorreko gai zerrendari buruzko galderen multzo itxi bati buruzkoak izango dira.

— 1 ariketako B atalean ezagutza berezien gaineko gai zerrendatik ausaz ateratako hiru gai garatu beharko dira.

— 2. ariketan kasu praktikoak ebatzi beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

— 3. ariketan azterketa psikoteknikoak egin beharko dira, Oinarri Orokorretan ezarritakoarekin bat etorriz.

**7. Esperientziaren meritua baloratzeko irizpide zehatzak**

Egiaztatutako esperientzia 11.2.1 oinarri orokorretan xedatutako A eta B atalen azpiatal hauen arabera baloratuko da:

— A1 eta B1: Telekomunikazioen ingeniari tekniko modura duen esperientzia teleagindu eta automatizazio sistemen eraikuntza, mantentze lanetan, proiektuak idazten eta obra zuzendaritzetan, saneamendu edo hornidurako azpiegiturak kudeatzeko.

— A2 eta B2: Telekomunikazioen ingeniari tekniko modura duen esperientzia teleagindu eta automatizazio sistemen eraikuntza, mantentze lanetan, proiektuak idazten eta obra zuzendaritzetan, beste mota bateko azpiegiturekin konbinatutako saneamendu edo hornidurako azpiegiturak kudeatzeko.

— A3 eta B3: Telekomunikazioen ingeniari tekniko modura duen esperientzia teleagindu eta automatizazio sistemen eraikuntza, mantentze lanetan, proiektuak idazten eta obra zuzendaritzetan, erabilgarrien azpiegiturak kudeatzeko (energia, gasa, trenbidea, etab.).

— A4 eta B4: Telekomunikazioen ingeniari tekniko modura duen esperientzia teleagindu eta automatizazio sistemen eraikuntza, mantentze lanetan, proiektuak idazten eta obra zuzendaritzetan aurreko ataletan aipatutako esparruetan, betiere plazaren funtzioekin lotura badauka.

